



HAUTSKUNDE PROGRAMA
2011ko HAUTSKUNDE OROKORRAK

IRUÑEA, 2011ko URRIAK 30

AURKIBIDEA

1. NAFARROAREN ONERAKO	4
1.1. Zer da Geroa Bai.....	4
1.2. Geroa Bairen balio politikoa	4
1.3. Geroa Bairen helburuak.....	5
1.4. Geroa Bai: abertzaleen eta euskaltzaleen boto erabilgarria	6
1.5. Orain da Geroa.....	7
2. GEROA BAIEN EKIMENERAKO ESPARRU OROKORRA	8
2.1. Kultur aniztasuna, politika-aniztasuna.....	8
2.2. Nafar herritarrak, subjektu politiko bakarra	8
2.3. Autonomiaren alde	8
2.4. Estatuarekiko itun berrirantz	9
2.5. Autogobernua handitzeko bide posibilista bat: eskubide historikoak.	10
2.6. Gizabidezko abertzaletasuna: eskubide-berdintasuna	10
2.7. EAerekiko eta Iparralderekiko harremanak	11
2.8. Elkartasunean oinarritutako Europa demokratikoa eraikitzearen alde	11
2.9. Indarkeriaren aurka eta memoria historikoaren alde.....	12
2.10. Estatu birzentralizatzearen aldeko asmoen aurka	12
2.11. GEROA BAI eta Nafarroako autogobernuan atzera egiteko dagoen arriskua	14
3. KRISI EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA	15
3.1. Nazioarteko egoera	15
3.2. Enplegua sortzeko bultzada tinkoa eta lan-harreman bidezkoak.....	17
3.3. Ongizate Estatuari eustea	20
3.3.1 Ongizate Estatu, Geroa Bairen irudikoz	20
3.3.2 Proposamenak: hezkuntza, osasuna eta gizarte-babesa	22
3.4. Elkartasuna ahaleginetan eta kontu publiko sendoak	24
4. SEKTOREZ SEKTOREKO POLITIKAK	27

4.1. Ingurumena eta Iraunkortasuna.....	27
4.1.1. Sarrera.....	27
4.1.2. Iraunkortasuna	27
4.1.3. Dena eta denok klima-aldaketaren aurka.....	27
4.1.4. Energia: berriztagarriak, garbiak eta enplegu-sortzaileak	28
4.1.5. Agur energia nuklearrari.....	29
4.1.6. Mugikortasun molde berria.....	29
4.1.7. XXI. mendeko berariazko ur-kudeaketa.....	30
4.1.8. Ingurumen-zerga	30
4.1.9. Kontratazio Publiko Berdea	30
4.2. Etxebizitza.....	31
4.2.1 Sarrera.....	31
4.2.2 Etxebizitza duinerako eskubide unibertsala baliaraztea.....	31
4.2.3 Alokairuaren merkatua eta ohitura sustatzea.....	32
4.2.4 Etxebizitza hutsak merkatura ateratzea.....	32
4.3. Kultura eta Euskara.....	33
4.4. Nekazaritza eta Abeltzaintza.....	34
4.5. Justizia.....	35
4.5.1. Espetxe Politika	35
4.5.2. Justizia Administrazioa	36
4.6. Herritarren parte-hartzearen alde; erakundeen berrikuntza demokratikoaren alde...37	
5. EKINTZA ETA KANPO EKIMENA.....	41
5.1. Bakezaletasuna eta antimilitarismoa.....	41
5.2. Lankidetzeta, elkartasuna eta garapena	42

1. NAFARROAREN ONERAKO

1.1. Zer da Geroa Bai

Geroa Bai koalizio bat da eta Zabaltzen elkarteaz (NaBaiko independente antolatuen elkarteaz), EAJ/PNV alderdiaz eta Atarrabia Taldea alderdiaz osatua dago, bai eta tokiko eta sektoreko beste elkarte batzuek ere.

Funtsean, Geroa Bairen baitan daude 2004ko hauteskunde orokorretarako NaBai sortu zen unean zeuden sentsibilitateak; garbi esaten dugu hori. NaBaik, hasieratik, bere baitan zekarren ideia integratzailearekin bat, Geroa Bai zabalik dago zeharkakotasunaren ardatzarekin eta aniztasunari datzekion aberastasunarekin bat egiten duen jendeari eta erakundeei; zabalik ere, lana eta balioak uztartzen dituen egitasmo politikoaren alde egiten dutenei. Proiektu hori, bada, berriz ere berritu egin dugu azaroaren 20ko hauteskundeei begira. Geroa Bai, horrenbestez, alderdi politikoekin bat egiten duen jendearen sentimenduaren adierazpidea da, baina aldi berean, baita luzaroan abstentzioa aukeratu zuen jende aunitzen sentimenduaren adierazpidea ere, eta abstentziora lerratu ziren, talde politikoen artean bakar batek ere haien espektatibei erantzuten ez zielako.

Geroa Bai nafar gizartearen baitan dago eta gizarte-mugimendu sakon eta handi baten hauteskunde-adierazpena da. Geroa Bai, beraz, ez da azaroaren 20ko hauteskundeetan parte hartzeko osatu den alderdi-koalizio taktiko hutsa, askoz ere gehiago baizik. Hauteskunde-elkartea den aldetik, Geroa Bai hainbat alderdiren, elkarteren eta herritar talderen apustua da, elkarrekin ekiteko, eta gauzak errotik aldaraziko dituen erakunde politiko bat finkatzeko.

1.2. Gero Bairen balio politikoa

Geroa Bai lanabes eraginkorra izan nahi du, gure gizartera egiazko aldaketa ekartzeko; egiazko politika eginen duen lanabes baliagarria ere izan nahi du, gure gizartean ditugun arazoak konpontzeko, egun gizartea ekonomia-krisi itogarriak harrapatua baitago, eta ez dago beste alde batera begiratzerik. 2004an, 2007an, 2008an, bai eta 2011ko udaberrian ere, argi ikusi zen NaBai lanabesik onena izan dela egiazko Nafarroaren sektore garrantzitsu bat agertoki politikoan kokatzeko, sektore hura bizitza publikotik kanporatua baitzegoen edo ez zuen hartan parte hartu nahi.

Geroa Bai, beraz, NaBai sorrarazi zuen espirituarekin bat datorren aukerabidea eskaintzen die nafar herritarrei azaroaren 20rako, hau da, elkartasunean oinarritutako gizarte anitz, ireki, elebidun, aurrerazale eta sozialaren alde egiteko borondatea; bere euskal nortasunaz, kulturaz eta hizkuntzaz harro dagoen Nafarroa; eskubide historikoak eta demokratikoak zaintzen eta zabaltzen ahalegintzen den Nafarroa; elkarren arteko errespetua eta ikuspen nahiz identitate desberdinak elkarrekin bizitzea ahalbidetuko dituen Nafarroa, frentismoa baztertuko duena, pentsamolde desberdineko jendea zokoratuko ez duena.

1.3. Geroa Bairen helburuak

Diputatuen Kongresuak eta nafar herritarrek berek nafar nortasuna bestela adierazteko moldea hauteman dute Nafarroa Bairengan. Hori ukaezinezkoa da. Gure diputatuaren lanari jarraipena eman nahi diogun heinean, argi eta garbi esaten dugu Geroa Bai gauza dela 2004an urratzen hasitako bideari jarraitzeko. Geroa Bairen bidez, Nafarroako abertzaleek eta euskaltzaleek berriz ere behar bezalako ahotsa izanen dute, oroz gain, Nafarroako herritar guztien interesen alde ekiteko, haien bozka edozein izanda ere. Bego esandakoaren berme, Kongresuko gure diputatu Uxue Barkosen jokamoldea. Horretan oinarrituta, beraz, zilegi bekigu esatea aurrerazaleen koalizio honen izaera demokratikoa erabat eredugarria dela, eta horixe hartu beharko luketela kontuan oraindik ere Nafarroa subjektu politiko gisa babestu beharrean beren interes hutsen alde ari direnek, hau da, Nafarroa objektu eta salgai gisa darabiltzatenek, bai eta jaurtigai gisa darabiltzatenek ere.

Nafarroako politikagintzan, Geroa Bai da egiazko Nafarroaren sektore bat eraginkortasunez aldezteko eta ordezkatzeko modu bakarra. Nafar asko gogaituak baitaude biztanleriaren zati nabarmen baten bazterketan datzan sistema politikoaz, eta jende hori bazterturik dago bestela pentsatze hutsagatik. Geroa Bai herritarren aurrean agertzen da, enfrontamenduan oinarritutako sistema politiko bat gainditzeko asmoz, sistema hori eraikia baitago *status quo*ari eusteko gibelasmoarekin, hau da, eskuinaren botere ahalguztidunari betirako eusteko asmoarekin. Irekiak eta barnerakoiak dira Geroa Bairen abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna, erro-errotik eta sakon-sakonki demokratikoak; hartara, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen du nafarrentzako, zer izan nahi duten erabaki dezaten, betiere gutxiengodunen talde-eskubideak errespetatuta.

Hauteskunde orokorreki dagokienez, Geroa Baik Madrilera eraman nahi du Nafarroan ezarrita dagoen gobernu-erregimenetik kanporatuak dauden nafarren ahotsa. Urteotako esperientziak erakutsi du Kongresuan esertoki bat izatea bitartekorik onena dela Nafarroako ahotsa entzuna izan dadin, aurreko 30 urtean entzuna izan ez den moduan; Kongresuko esertoki baten bidez, gainera, Nafarroako gizon-emakumeen interes orokorreko kontuak eramaten dira hango osoko bilkuretara eta batzordeetara.

Arduragabekeria litzateke parte ez hartzea gure herrikideengan alde edo moldez eragina duten kontuak eztabaidatzen diren foroetan; dela Madrilgo Kongresuan dela beste edozein tokitan.

Politika arduratsua aldezerakoan, Geroa Bain uste dugu bakearen alde eta erabaki-eskubidearen alde aritzeko ahalegin osoa lotuta dagoela gainerako arazoak behar bezala konpontzeko borondatearekin; bereziki, egungo krisi ekonomikoak sortu dituen arazoak konpontzeko borondatearekin. Arinkeria hutsa litzateke gure herritarren arazoak eztabaidatzen diren edozein gunetan ez agertzea, eta gogotik ordainduko genuke.

Horrenbestez, oraindik konpondu gabe dauden beharrei ekiteaz gainera (bakeari, erabaki-eskubideari, aniztasunari, bizikidetzari eta Euskal Herriko gainerako herrialdeekiko harremanari), Geroa Baik, halaber, Nafarroak epe laburrean dituen erronka handiei helduko

die. Hona hemen erronkak: krisi ekonomikoa gainditzea eta enplegua sortzea; Ongizate Estatua aldeztea, arazoa klase ahulenen bizkar gainean ziztuan gaizki konpondu nahi dituzten irtenbideen aurrean; aldiz, ekonomiaren eta finantzen egungo atakan erantzukizun handiena dutenek ez dute ahaleginik batere egin nahi; lan-kolokatasunaren eta lan-istripuen aurkako borroka; gazteek, emakumeek eta etorkinek bazterkeriaren aurka darabilten borroka; gure adinekoentzako laguntzarik ezaren aurkako borroka; zentzuzko garapen iraunkorraren alde egitea, bai eta informazio-gizartearen alde eta gure ordezkapena kontuan hartuko duen europar esparruaren alde egitea ere. Eta hori guztia, demokrazia aurreratuko printzipioetan eta eskaintzan oinarritua.

Geroa Bai egungo eta etorkizuneko egitasmoa da, orain eta epe erdian eta luzean egin beharrekoa. Geroa Bai Nafarroara etorkizun berria ekartzeko aukera da. Betiko moldeen aurrean, Geroa Bai aurrerazaletasuna dakar. Gainerako nafar ordezkariak inposatzen dizkieten murrizketen aurrean edo gainerako nafar ordezkariak beren buruari inposatzen dizkieten murrizketen aurrean, gure diputatuak erabakitze askatasuna ekartzen du, bai eta gaitasuna eta eraginkortasuna ere. Frentismoaren aurrean, Geroa Bai irekitasuna eta bizikidetzaren proposatzen ditu. Eta hasierako planteamendu horren azpian jarduketa-konpromiso zehatzak daude, bai eta helburu zehatzak eta berariazko neurriak ere. Lorpen ukigarriak nahi ditugu, ikusteko moduko aurrerapenez gainera.

Geroa Bai, gainera, gure eskubide historikoak, gure Hitzarmen Ekonomikoa eta gure zerga-autonomia arduraz eta egiazki aldeztea eta garatzea xede duen aukera bakarra da. Ikusi berri dugu nola ukatu dieten PPK, UPNk eta PSNk herritarrei nafar autonomia errotik ukitzen duen konstituzio-erreforma bat erreferendum bidez eta demokratikoki erabakitze eskubidea. Geroa Bai erreferendumaren bidea aldeztuko du beti, herritarrak horren sakon ukitzen dituzten kontuak erabakitze, eta erreferendumak ere izan beharko luke oraindik egin gabe dauden konstituzio-erreformak egiteko bitartekoa; senatuaren erreforma, etab.

Beste talde batzuek ez bezala, Geroa Bai ez dio uko egingen gure autogobernuaren eskumen-esparrua aldarrikatzeari. Egungoa bezalako egoeran, langabeak 42.000tik gora baitira, haietako aunitz gizarte-kanporaketaren amildegian, eta ikusita Nafar Gobernuak egun ez duela eskumen gehiago hartu nahi, Madrilen ere gure eskumen-maila handitzea aldarrikatuko dugu; izan ere, gure autogobernua zenbat eta handiagoa izan, aukera gehiago izanen dugu gure herritarren arazoak konpontzeko, eta lanabes ahaltsuagoak eta ugariagoak izanen ditugu eskura, nafar herritarren probetxua eta ongizatea eraginen duten politikak gauzatzeko.

Berretsi egin nahi dugu 2004. urtean azaldu genuen printzipio politiko bat, hauxe: Nafarroako foru erregimenak muga bakar bat izan beharko luke; hots, herritar gehienek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatea.

1.4. Geroa Bai: abertzaleen eta euskaltzaleen boto erabilgarria

Heldu den azaroaren 20an, Estatuko herritarrek, eta Nafarroakoek ere, jakina, Kongresuaren eitea erabakiko dute; hau da, Kongresu kontserbadorea edo aurrerazalea. Baina Nafarroan beste inon baino gehiago, argi ikusi dugu ez dagoela konfiantza izaterik Estatuko alderdi

handiengan politika aurrerazaleak eta ezkerrekoak egiterakoan. Geroa Baik herritar guztientzako aurrerabidea aldeztuko du, bere ahotsaz aldeztu gainera, *ideologia-kontrako* itunik gabe, interesean oinarritutako akordiorik gabe, UPN-PPk eta PSNk erakutsi duten bezala. Geroa Baik eta koalizioko hautetsiek bi lankidetzaz iraunkorri eusteko konpromisoa hartzen dute: Nafarroan, jende abertzale, aurrerazale, euskaltzale eta ezkertiarrekin. Estatuan, gizarte-gaietan ikuspegi aurrerazalea duten eta nazioen eskubideen alde egiten duten hautagaitzekin. Azaroaren 20an Nafarroako gizon-emakumeen dilema ez da *Rubalcaba edo Raxoiren* arteko hautua egitea, askoz ere gehiago baitago jokoan: hots, Madrilen baldintzarik gabeko ahotsa izatea edo ez. Izan ere, aukera dugu gure botoen bidez bulegoetan gizartearen interesari egin zaien kalte handiari ezezkua emateko; aukera ere, herritarren ahotsa buruzagienaren gainetik jarriko duen demokrazia baliarazteko. Geroa Baik, hortaz, lagundu egingen du Nafarroan egiazko bizikidetzaz sortzen, gure herrialdean oraindik ere nagusi diren intolerantziatik eta haserre-girotik askatzeko.

Era berean, ez dezagun ahaztu eskumenak birzentralizatzearen alde datorren uhin handia Estatuko bi alderdi handien eskutik. PPk eta PSOEk, izan ere, ideia hori darabilte, krisi ekonomikoaren aitzakiapean, UPNk berariaz lagunduta, gainera. Beraz, lurralde-eredua bateratu nahi dute. Krisiaren aurkako neurriak abian jartzearen aitzakiapean, ikusiko dugu nola alderdi handiak saiatuko diren autogobernuaren ezaugarri guztiak errotik mozten, eta, horren ondorioz, erabakiak ez dira Nafarroan hartuko, leku urrunagoetan baizik.

1.5. Orain da Geroa

Geroa Baik, lehenago NaBaik bezala, ilusio handia piztu du Nafarroan. Balio berezi hori, beraz, arduraz kudeatzen jarraituko dugu. Baina, horrez gain, beharrezkoa da nafar bakoitzak bere ekarpena egitea: horrekin bat, gazteei eta helduei, langileei, kulturako jendeari eta, oro har, gizarte-sektore guztiei eskatzen diegu laguntza emateko, etxez etxe, auzoz auzo eta herriz herri, herritar guztien erabaki librea agertzeko eta bermatzeko. Izan ere, zuen eta denon ilusiori esker, Geroa Bai izan daiteke NaBaik izaterik izan ez zuen huraxe.

Geroa Baik Nafarroa onean bultzatu nahi du guztientzako oraina eta etorkizuna, Orain baita Geroa.

2. GEROA BAIEN EKIMENERAKO ESPARRU OROKORRA

2.1. Kultur aniztasuna, politika-aniztasuna

Geroa Baik bildu egin du eta jarraipena eman dio NaBai sortu zeneko espirituari. Geroa Bai, berez, Nafarroako gizarte osoan erein nahi den kultura politiko berriaren adierazpena da. Kultura politiko berri horren funtsa nafar gizartea anitza dela aitortzean datza eta, era berean, zeharkakotasunak politikarako ardatza izan behar duela aitortzea. Koalizioak Nafarroako politikagintzan aldaketa bultzatu nahi duten hainbat sektore hezurmamitu ditu bere baitan, talde eta sentsibilitate biziagoekin eta aurrerazaleagoekin bat eginda. Geroa Bik, beraz, bere egin ditu kultur anitzak diren beste gizarte batzuen esperientziak; bere egin ere, berezitasunari probetxua atera dioten gizarteen bizipenak, bizitza demokratikoan herritartasunaren eta gizabidezko abertzaletasunen bitartez.

Politikako eta erakundeen arloko proposamenari dagokionez, Geroa Baik eutsi egin die ondoren zehazturik ageri diren printzipioei eta, horrekin bat, azalduko ditugun neurrien alde egitea proposatzen dugu, betiere NaBaik orain arte egindako lanari jarraipena emanaz. Geroa Bairen irudikoz, politika-antolamendu zilegi bakarra herritarren borondate demokratikoan eta herritarren negoziazioan datzan huraxe da. Beraz, tinko baztertzeko inposaketa, bai eta indarkeria mota oro ere.

Printzipio berean oinarriturik, Geroa Bai herritar guztiak jarduera politiko ororen garapenean aritzearen aldekoa da; horrenbestez, herritarren parte-hartzea zaindu eta sustatzearen aldeko konpromisoa hartzen du.

2.2. Nafar herritarrak, subjektu politiko bakarra

Geroa Bairen irudikoz, nafar herritarrak subjektu politiko bakarra dira. Nafarroak ez du izaera esentzialistako objektu politikoa izan behar, gizarteak askatasunez adierazitako borondatearen emaitza baizik. Hori dela eta, proposamen demokratiko oro gizarte eztabaidan txertatu beharko litzateke, herritarrek askatasunez erabaki beharko lukete, eta herritarren borondateak ez luke inola ere muga gaindiezinik izan behar iraganeko edo oraingo egitura politikoetan eta instituzionaletan.

Geroa Baik baldintzarik gabeko ahalmen konstituziogilea aitortzen die nafar herritarrei eta, era berean, askatasunez haiek nahi bezalako erregimen politikoa ezartzeko eskubidea. Aitortzen die, orobat, Espainiako Estatuarekin erakunde bateratuak berdinen artean negoziatzeko eskubidea.

2.3. Autonomiaren alde

Hurrengo legealdiari dagokionez, Geroa Baik Nafarroako eskubide historikoen alde egingen du eta gure politika- eta zerga-autonomia mugatzen eta murrizten duten ekintzen aurka joko du: esate baterako, azken konstituzio-erreformaren aurka, behar adinako adostasun politikorik gabe egin baitzen, eta Estatuko legedia, oinarritzko legeen bidez, erreformatzea, erabat gureak diren eskumenen kontra jotzen baitu.

Geroa Bai Foru Hobetzea berehalakoan eta premiaz erreformatzearen aldekoa da. Estatuarekiko itun politikoi berriak, gutxienez, hiru baldintza hauek bete beharko lituzke: Nafarroa herritarrek askatasunez erabakitzen duten autogobernu-mailez hornitzea; alderdi politiko guztien artean adostea, inor bazterrean utzi gabe, eta, Estatuarekiko negoziazioaren emaitza herri-erreferendum bidez berrestea.

2.4. Estatuarekiko itun berrirantz

Geroa Bai gizabidezko abertzaletasuna da, abertzaletasun instituzionala. Nafarroako estatus politikoiari dagozkion eztabaida eta adostasun oro (Nafarroako eskumen-mailan eragina izanen dutenak) Nafarroako Parlamentuaren baitan egin behar dira, inor bazterrean utzi gabe, eta azken ebazpenean eragina izan dezaketen botere faktikoen presiorik gabe.

Espainiako Estatuarekiko itun politiko berriak eduki hau izan behar du:

- Nafar guztiek dute haien etorkizunari buruz kontsultatuak izateko eskubidea, eta erabateko gaitasuna dute kontsulta demokratikoak erreferendum bidez arautzeko eta kudeatzeko.
- Konstituzioaren 150.2 artikuluan aurreikusitako transferentziak edo transferentzia-eskuordetzeak nafar eskumen-esparruaren alde erabiltzea.
- Nafarroak bere botere judiziala eratzea, botere horretan instantzia judizial guztiak agortzeko, bazter utzi gabe Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa, doktrina batzeko.
- Erabateko autonomia, autogobernu politikoiari dagozkion erakundeak antolatzeko, eta Estatuak oinarritzko legeriaren bidez ezarritako mugak kentzea.
- Nafarroak erabateko eskumena izatea kulturaren, hizkuntzan, hezkuntzan eta ikur eta ezaugarrien arloan.
- Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialtzat aitortzea.
- Gizarte segurantzaren ekonomia-araubidearen kudeaketa autonomoa, eta erabateko eskumena lan-harremanetan, aurreikuspenen, ongizatean eta Gizarte Segurantzaren.
- Estatuarekin aldebiko sistema bat ezartzea eta, era berean, funtsezko ebazpen-organoei parte hartzeko bideak ezartzea; Auzitegi Konstituzionalean, esaterako.
- Nafarroako herritarrek Euskal Autonomia Erkideagoarekin beren borondatez erabakitzen dituzten loturak ezartzea.
- Nafarroa Behereko erakundeekiko harremanak sakontzea, Nafarroa Garaiko eta Behereko herritarren artean mendez mende gizarte eta kultur arloan izan diren harremanak berreskuratzeko eta sendotzeko.
- Nafarroak bere ahotsa Europan izatea, bai eta nazioarteko harremanetan ere. Horrez gain, Nafarroak Europako erakundeetan zuzeneko parte-hartzea izatea Nafarroak bere gain dituen eskumenen alde eta Nafarroako nortasunaren alde.
- Giza eskubide guztiak egiazki onartzea eta haien alde egitea, Konstituzio politikorik aurreratuenek aitortzen dituzten gizarte eta kultur eskubideak barne.
- Behar diren lanabesak, gizarte-politika baliagarriak eta behar bezalako zerbitzu publikoak sortu eta gauzatzeko.
- Etorkinen eskubideen gaineko adierazpena eta Hirugarren Munduarekiko elkartasuna legeetan jasotzea.

2.5. Autogobernua handitzeko bide posibilista bat: eskubide historikoak.

Espainiako egungo Konstituzioaren zurruntasuna eta mugak kontuan hartuta, Geroa Baik Eskubide Historikoen bidea proposatzen du Estatuarekiko itun politiko berria ahalbidetzeko; bide hori, bidenabar esanda, Konstituzioak berak aitortua du, bai eta Forua Hobeagotzeko Legeak ere. Geroa Baik politikan proposatzen duen ituna ez da oinarritzen UPN-PPren eta PSNren bigarren mailako paktismo baldintzatuan eta esentzialistan, Eskubide Historikoen eta forutasunaren interpretazio erradikal eta demokratiko batean baizik, nafar herritarrek erabakitzeko duten ahalmen baldintza gabearekin bat. Kultura historiko gutxiengodun baina sendo batean sustraitua dago eta, aldi berean, bat dator egungo planteamendu demokratikoekin. Ildo horren berezitasuna hauxe da: Nafar herria berez da subjektu politikoa; erabatekoa, gainera. Horrenbestez, ahalmen konstituziogile baldintzarik gabea du, bai eta bere erregimen politikoa ezartzeko eskubidea ere; Nafarroa eta Espainia artean, berdinen arteko itun bat egin behar da, bakoitza bere Konstituziotik abiatuta, eta erakunde batu jakin batzuk ezarriko dituzte, batasun politikoaren adierazgarri. Horra hor Estatuarekiko Paktismo Nagusia, espainiar nazionalismoak gauzatutako Paktismo Txikiaren gezurra agerian jartzen duena.

Geroa Bai eskubide historikoen aldekoa da, hau da, Nafar herritarren baldintzarik gabeko erabaki-eskubidearen aldekoa, Nafarroako autogobernua handitzeko bermea delako, eta ez du oinarri, ez garaiz kanpo dagoen gogo historizista, ezta tradizioa tradizioaren izenean defenditu nahi izatea ere. Ez dugu ahaztu behar egungo kultura politiko espainiarrak sekulako hesia eraiki duela federalismo nazionalaren eta asimetrikoaren aurka. Gure iritziz, federalismo molde hori nazio anitzeko estatuei legokieke (Espainiako Estatukoei esaterako), eta ezaugarri du, batetik, kide den nazio bakoitzak botere konstituziogilea izatea eta, bestetik, itun federal egiazko bat ezartzeko gaitasuna, entitate nazional bakoitzari autogobernu-maila altua gordetzeko, bai eta Estatu Federalean parte hartzeko modu jakin batzuk ere (Gobernu partekatua, eskubide nazionala babesteko bideak izatea eta Auzitegi Konstituzionalean parte hartzea). Datu guztiek diote ez dela Espainiako Konstituzioa erreformatuko federalismo nazional eta simetrikorantz jotzeko; ikusi besterik ez dago zer gertatu zaien aurreko legealdian Estatutuen aldaketei edo nola aldatu dute Konstituzioaren 135. artikulua. Guri dagokigunez, Eskubide historikoak federalismo nazionalaren bidean aurrera jotzeko bide edo lanabes konstituzional bakarra dira. Zentzuzkoa da, beraz, ahal den gehien baliatzea.

2.6. Gizabidezko abertzaletasuna: eskubide-berdintasuna

Gizabidezko abertzaletasuna Geroa Bairen baitan dagoen kulturetako bat da. Gizabidezko abertzaletasunak Nafarroako ideia eta leialtasun identitario guztiak errespetatzen ditu, eta herritar guztien (bertan eta kanpoan jaiotakoak) eskubide-berdintasunaren printzipioa aldarrikatzen du. Gizabidezko abertzaletasunarekin bat, Geroa Baik gogoz saiatu nahi du herritarren arteko elkarbizitza sustatzen, Nafarroako lurralde guztietako jendea (zeharkakotasun geografikoa) proiektu berean txertatzeko, zer identitatearekin egiten duten bat edozein izanda ere (zeharkakotasun identitarioa). Azken buruan, nafar gizarte ongi egituratua nahitaezko baldintza da kanpotik etorri diren nafar herritar berriak egokitasunez gizarteratzeko. Nafar herritarren unibertsaltasunaren aldekoak gara eta nahierarako identitatearen aldekoak ere; horrekin bat, nafar guztiok lehen mailako herritarrak gara, eta bakoitzak bere proiektu identitarioa aukeratzen du.

Herritar guztientzako eskubide-berdintasunarekin bat, eta zehazki hizkuntza-eskubideei dagokienez, aukera-berdintasunaren izenean, euskarak ofiziala izan behar du eremu ez euskaldunean, eta ondotik hizkuntza-legeria osatu behar da, herritarren eskariekin bat eta egoera soziolinguistikoari jarraiki. Nafarroan bi hizkuntzek bakean eta emankortasunez bizi beharko lukete, eta behin betiko itxi behar da egun gizartea gaztelaniatzeko dagoen ildo, ildo antzua eta baztertzaila baita, eta oztopoak jartzen dizkio gizarteak euskara ikasteko eta erabiltzeko duen nahiari.

Geroa Bairen irudikoz, immigraziotik sortutako taldeak eta nazionalitateak Nafarroako aberastasun eta aniztasun identitarioaren zati dira, eta konpromisoa hartzen du behar diren bitarteko guztiak abiarazteko, aipatu talde horiek beren kultur identitateari euste aldera, kultur identitate hori lantze aldera; etorkinek, aldi berean, gure kultur identitatea jaso eta hartan parte hartu behar dute.

Geroa Baik lurralde-politika eragile eta adostuak eginen ditu, Nafarroako eskualde guztiak arlo guztietan orekatasunez garatzeko, Nafarroako herritar guztien eskubideak bermatze aldera, non bizi diren alde batera utzita.

2.7. EAErekiko eta Iparralderekiko harremanak

Geroa Baik badaki, ongi jakin ere, mendez mende harreman bereziak izan direla kulturari, ekonomian eta beste arlo batzuetan Eusko Autonomia Erkidegoko biztanleekin eta Iparraldeko euskaldunekin; Nafarroa Beherekoekin, bereziki. Geroa Baik, horrenbestez, nafar erakundearen osotasuna oinarri harturik, eta Nafarroako herritarren garapen eta ongizatea soil-soilik kontuan hartuta, EAEekin konfederazio bat eratzea proposatzen du, epe ertain edo luzera, eta herritar gehienek halaxe nahi badute.

Geroa Baik lankidetzaren lanabes iraunkorrak sortzea bultzatuko du Nafarroa eta Eusko Autonomia Erkidegoaren artean; esaterako, Nafarroako Parlamentuak 1996an onetsitakoaren antzekoa, baina bidea egiteko aukerarik izan ez zuena. Delako organo hori erabat dator bat Konstituzioarekin, eta horrek ez du inola ere ukitzen autonomia bakoitzaren eskumen-sorta, eta ez ditu ez Iruñeko ez Gasteizko parlamentuan ahalmenak murrizten. Funtsean, organo iraunkorra lankidetzarako erakunde egonkor bat da, baina Gobernu bakoitza arduratuko da politikak garatzeaz, eta, jarduketak batzea behar denean, Konstituzioan aurreikusita dauden lanabesak erabiltzen dira. Ekintzak administrazio bakoitzak gauzatuko ditu; ez, ordea, Organo Iraunkorrak. Organoa, beraz, topaketarako foro bat da, eta, halaxe den aldetik, ez da inola ere organo eragile edo betearazle bat, ezta Gobernuetatik bereizita dagoen edo independentea den ordezkartza politikoko organoa ere.

2.8. Elkartasunean oinarritutako Europa demokratikoa eraikitzearen alde

Geroa Bai erabat dago konprometitua Europa politikoa eta soziala eraikitzearekin. Horrenbestez, autodeterminazio-eskubidea aitortzen duen Europa demokratikoaren aldekoa da, eta horrek Europako herri guztien egiazko parte-hartzea izan beharko luke oinarri. Era berean, Europa sozialaren aldekoa da, politika ekonomikoak herritar guztien ongizatearen zerbitzuan jartze aldera.

Geroa Bairen irudikoz, Nafarroak Europar Batasuneko erakundeetan parte hartu behar du, hau da, Batasuneko Ministroen Kontseiluan eta Batzordeetan; horrekin bat, Geroa Baik nahi du Nafarroak erabakiak Batasunarekin batera hartzeko ahalmena izan dezala eta, aldi berean, zuzeneko parte-hartzea izan dezala haren intereseko edo eskumeneko gaiak aztertzen dituzten erakundeetan; ahaztu gabe, Bruselan ordezkaritza iraunkor bat izatea buru-belarri gure interesen alde ekiteko.

Geroa Baik, era berean, Nafarroa, Akitaniako Erregioaren eta EA Eren arteko Lankidetzaren Protokoloa berrekuratzeko aldarrikatzen du (UPNko Gobernuak ezabatu zuen huraxe bera), Nafarroak Europan aukera gehiago eta hobekia izan ditzan; izan ere, aldatu egin baitira ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemak, eta areagotu egion dira nazioz gaitzak harremanak. Horrek eraginda, beharrezkoa da auzoko erregioen artean politika bateratuak egitea. Geroa Baik, gainera, konpromisoa hartzen du Europako erregio mailako beste elkarte moldeak garatzeko, Nafarroarentzako interesekoak badira; esaterako, Europa Atlantikoaren Hegoaldeko Erregioen Konfederazioa (SEA) eta Pirinioetako Lan Erkidegoa, 1983an sortutakoa. Geroa Bairen irudikoz, azkenik, Baionako Itunari ahalik eta probetxurik handiena atera behar zaio; Espainiak eta Frantziak 1995ean sinatutako ituna da, Frantziako eta Espainiako lurralde-entitateen arteko mugaz gaitzak lankidetzaren errazte eta sustatze aldera, eta herritarrek itunak eskaintzen dituen aukerak baliatu ditzaten bultzatze aldera.

2.9. Indarkeriaren aurka eta memoria historikoaren alde

Geroa Baik erabat arbuiatu eta gaitzesten du indarkeria mota oro eta, era berean, indarkeria erabiltzea probetxu eta abantaila politikoak lortzeko. Geroa Baik, era berean, giza eskubide guztiak aitortu eta errespetatzen ditu, inolako salbuespenik gabe. Geroa Baik, aldi berean, bere borondatea eta konpromisoa azaltzen ditu alde guztiekin elkarlanean aritzeko, bide demokratikoen bitartez indarkeria mota oro erabiltzea baztertze aldera, gizarteak prozedura politikoak bere egin ditzan, demokrazian horiek baitira harremanetarako bide bakarra.

1936tik hona, arrazoi politikoak eraginda, gertatu diren biktima guztiei dagokienez, eta egiazko adiskidetzaren ikuspegitik, Geroa Baik beharrezkoa irizten dio biktima guztiak gogoan izateari eta botere publikoek eta herritarrek behar bezalako ordaina emateari. Biktima orok errespetua merezi du eta, horrekin bat, Geroa Baik, era berean, errefusatu egiten ditu, batetik, indarkeria politikoarekin lotzen diren iraganeko gertakarien manipulazio manera guztiak eta, bestetik, errefusatu ere, indarkeriak sortutako sufrimendua gutxitzeko edo erlatibizatze saiakera guztiak, indarkeriari buruzko ikuspegi selektibo eta partikularista bat oinarri harturik. Geroa Baik, horrenbestez, 1936tik gaur egundaino indarkeria politikoak sorrarazi dituen biktima guztiak gogoratzea aintzat hartzen duen memoria historikoaren aldekoa da. Geroa Baik, beraz, uneo oro eskatuko du indarkeriak eragindako oinazearen ordaina, eta, horrez gain, aldarrikatu egingen du zuzendu daitezela gaur egun biktima batzuen eta besteen artean hainbat arlotan dauden desberdintasunak: arlo judizialean, mediatikoan eta historiografikoan.

2.10. Estatua birzentralizatzearen aldeko asmoen aurka

Geroa Baik erronka handi aunitz izanen ditu aurrez aurre hurrengo legegaldian. Horietako bat izanen da Estatuko botereen antolaketan egin daitezkeen aldaketan aurrean jarrera argia hartu

beharra; aldaketa horiek, ez dezagun ahaztu, Nafarroak duen estatus instituzionala uki baitezakete.

Autonomien Estatuak sortu zen eta *kafea guztientzako* formula hura erabili zen, II. Errepublikan autogobernua aldarrikatu eta lortu zuten nazionalitateen eskakizunari indarra eta garrantzia kentzeko. Oso laster, 1981eko Estatu-kolpearen saiakeraren ondotik, eredu LOAParen bidez sakon desitxuratu nahi izan zuten, eta handik hona, Estatu oinarritzko legeen bidez eta lege organikoen bidez egin izan da. Berrikiago, azken hamarkadan, argi eta garbi ikusi dugu nola Estatuak bidea itxi egin dien EAEko eta Kataluniako asmoei, autogobernua Estatuak berritzearen bidez handitzeko.

Orain gertatzen ari dena aurreko horri dago lotua, baina bestelako funtsa dauka, edo nahiago bada, funts osagarria. Izan ere, autonomia-ereduak, oro har, zaleak eta atxikimenduak galdu ditu bidean, batetik, hein batean, sistema bera ahula delako eta okerrak izan dituelako, eta, bestetik, espainiar nazionalismoak boterea deszentralizatzeko gogo handirik izan ez duelako. Orain, krisiak bazterrak gogor jo dituen honetan, larrutik ordaintzen ari gara Autonomia Erkidegoak gaizki gobernatu izana (zerbitzuak neurrigabe hazi izana; herrilan arranditsu, garesti eta ez-errentagarriak egin izana; Aurrezki Kutxak gaizki kudeatu izana, eta sekulako zor publikoa sortu izana). Kultura politiko inboluzionistan oinarriturik, Estatu bi alderdi handiak krisiaz baliatzen saiatzen ari dira, Administrazio autonomikoa, oro har, erreformatzeko. Indarra hartu duen tesiak dio defizit publikoa funtsean zor zaiola Autonomien kontrolik gabeko gastuari, bai eta ematen dituzten zerbitzuak bikoiztuak egoteari ere. Horrez gain, herritarrak konbentzitzen ahalegintzen ari dira Estatu zentral indartsu bat berrezarri beharraz, munta handiko eskumenak berreskuratzeko; hezkuntza eta osasuna, esate baterako. Bi alderdien esanetan, beharrezkoa da Autonomiak *mehetzea*, Konstituzioan erreformak eginda, edota, iraganean bezala, lege organikoen, oinarritzkoen eta arrunten bidez.

Argi dago, beraz, bi alderdiak espainiar nazionalismoa elkarrekin berritzen ari direla, eta, horrekin bat, bi alderdiok bat etorriko dira nazionalitateak eta Nafarroa (zerga-autonomia duen Erkidegoa baita) ukituko dituzten erreformak egiterakoan. Gure iritziz, elkar aditze horrek bi bide egin ditzake: elkarrekin gobernatuko dute interesatzen zaien Erkidegoetan eta beharrezkoa jotzen dutenean (gure lurretan badira adibide garbiak), eta Parlamentu Zentraletik ekin eta erreformak bultzatzea.

Ez alferrik, Alderdi Popularra eta Alderdi Sozialista beti jarri dira ados, autogobernua sakontzea aldarrikatzen duten indarrei eta mugimenduei Gobernuetan sartzeko atea ixterakoan. Nafarroan bertan, esaterako, alde edo moldez beti ados egon dira Trantsiziotik hona gobernatzeko; hartara, gainera, behin eta berriz argudio bat, hitz bat erabili dute aitzakiatzat: hots, gobernagarritasuna. Baina badakigu zer dagoen hitz horren atzean: Nafarroako sektore politiko garrantzitsu bat kanporatzea. Lehengo lepotik burua, beraz. Gauzek bere horretan diraute, eta 2009an elkarren arteko ituna egin zuten EAE gobernatzeko, herritar gehienek ordezkatzeko duten ildoak baztertze aldera.

Madrilgo Gorteetatik etor daiteke gauzak erreformatzeko beste ekinaldia: hots, Konstituzioan bertan aldaketak egitea; horren erakusgarri, horra hor Administrazioetako defizitari muga jarri

berri dion erreforma konstituzionala. Aski izan da PPK eta PSOEek tratua egitea, 1978ko kontsentsu konstituzional hura hausteko, orain artean ukiezina izan dena. Eta gizartea ia mutu egon da, ia txintik esan gabe. Hurrengo pausoa Hauteskundeei buruzko Legea aldatzea izan daiteke, nazionalitateen pisu politikoa murrizteko. Gero, Hezkuntza, Osasun eta Kultura arloko eskumenak berreskuratzea. Eta, ondotik, krisia aitzaki, Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa uki dezakeen *harmonizazio* bat.

2.11. GEROA BAI eta Nafarroako autogobernuan atzera egiteko dagoen arriskua

Geroa Bai solidarioa da Estatuko gainerako Erkidegoekin askatasun publikoei eusteko ekimenean. Bestelako egoera dauka Nafarroak autogobernuari dagokionean, Estatuarekiko alde biko harremanean oinarritzen den tradizio foral baten oinordeko bakarra baita; oraingoz, behinik behin. Hasiera batean, eskumenak birzentralizatzearen aldeko aldatetek ez gintuzkete ukitu behar, nafar estatusa antolamendu juridikoan bermatua baitago, hala Konstituzioan nola Foru Hobetzean. Erran nahi baita, Nafarroako araubide autonomikoaren izaerak babesturik gaude eta, aldi berean, gogoratuko dugu edozein aldaketa, den mendrena ere, Estatuarekiko alde biko akordio bati lotu behar zaiola, eta horrek botere-antolaketa aldatzeko saioetatik babestuko gintuzke.

Fede ona izan dezakegu bai, baina ez gaitezen inozoak izan: gauza bat uste sendoak eta printzipioak baitira, eta beste bat egintzak. Estatuarekiko harreman bide luzean, Nafarroak gure forutasun galduaren hondarrak babestu izan ditu denboraren joanean; tinko, batzuetan. Azken 30 urteari dagokionean, ordea, ikusi izan dugu zer-nolako koska handiak egin dizkioten autogobernuari lege organikoen, oinarritzkoen eta arrunten bitartez. Eta, berrikitan, Nafarroak ez du ezer ere esan Konstituzioaren azken erreformaren karira. Are gehiago, UPN erreformaren alde atera da.

Bada, hurrengo legealdia gogoan, kontuan hartu behar da PPK gehiengo osoa izan dezakeela eta PSOE prest egon daitekeela Estatuko aferetan laguntzeko, eta horrek lotura handia izan dezakeela Autonomien Estatutua erreformatzearekin. Eta Nafarroan, hara, Gobernuari eusten dioten bi alderdiak, alde edo moldez, Estatu mailako alderdi banari obeditzen diote. Eta eskarmentuak irakatsita jakin badakigu aise amore ematen dutela alderdietako agintaritza zentralek inposatzen duten diziplinaren aurrean eta bazterrean uzten dutela Nafarroako interes publikoa babesteko nahia. Ikusi besterik ez dago zenbat errekurtsio aurkeztu dituzten UPNk eta PSNk Auzitegi Konstituzionalaren aurrean, Estatuko legeriak nafar eskumenak murriztu izanaren ondorioz.

Ziurrenera, birzentralizatzea hauspotzeko urteak heldu dira, eta horrek erronka berezi baten aurrean kokatuko du Geroa Bai: hots, hemen eta Madrilen Nafarroako autogobernua berak bakarrik aldeztu beharra alderdi handien arteko Estatu-akordioek ekarriko dituzten murrizketen aurka. Geroa Bai, izan ere, Nafarroak Madrilen izanen duen ahots bakarra baita, hau da, bakar-bakarrik interes nafarrei erantzungo dien ahots bakarra.

3. Krisi ekonomikoa eta enplegua

3.1. Nazioarteko egoera

Geroa Bairen irudikoz, Nafarroak duen erronka nagusia gizarte, ingurumen eta ekonomia garapen iraunkorra sustatu eta bermatzea da. Horixe baita nafar guztien aberastasun-mailari eusteko eta huraxe hobetzeko modu bakarra, bai egungo herritarrena bai etorkizunekoena. Gizarte eta ingurumen garapena ez daiteke ulertu garapen ekonomikorik gabe, eta garapen ekonomikoa ez daiteke ulertu gizarte eta ingurumen garapenik gabe; eta oraingo garapena ez daiteke ulertu etorkizuneko garapena zaindu gabe. Geroa Baik Nafarroa sendoa nahi du ekonomian, sozialki kohesionatua, solidarioa beharrezan daudenekin eta ingurumena zainduko duena. Hau da, gaur egunerako eta etorkizunerako Nafarroa.

Sekulako erronka da, duela urte batzuetatik hona gure artean dagoen krisi latza ikusita. Krisiak erditik astindu du mundu garatua delakoa; krisiak kaltea ekarri digu denoi, nafar guztioi, dela zuzenean, dela senitartekoei eta/edo lagunei.

Geroa Bairen ustez, krisia, oroz gain, balio-krisia da. 90eko hamarkadako erdiaren aurretik bizi izan genituen urte onek merezi ez bezalako aldarean jarri zituzten merkatuak, eta, horren bidez, pentsamolde neoliberalik muturrekoenak bere tesiak inposatu ditu, gauzek okerrera egin ez zezaketelakoan; eta, hori, bistan denez, guztiz gezurra izan da. Merkatuak erregulatu gabe utzi dira (esaterako, zilegi izan dira espekulaziozko produktu eta jarduerak, guztiak ere eragin handikoak, merkatuak berez erregulatuko zirelakoan; hori inozokeria); arduragabekeriak jokatu dute gertatzen ari zenaren jarraimendua eta kontrola egiteko arduradunek; axolagabekeria onartezinaz aritu dira gobernuak, horiek erantzule nagusiak izaki. Eta horren guztiaren atzean, guztiaren euskarri, bankuetako zuzendariak eta merkatuetako gainerako finantza-eragileek kobratu dituzten ordainsari lotsagarriak eta moralgabeak, epe laburrean etekin espekulatiboak lortu nahian, beste edozein lehentasunen gainetik, eta arrisku sinestezinak bere gain hartuz. Hala ere, gauzak ongi ateratzen zirenez, zuzendari boteretsuek pentsatu zuten (pentsatu nahi izan zuten) ez zegoela arriskurik, eta modu berean jokatzen jarraitu zuten, gero eta sari handiagoen bila.

Lehman Brothers auzia karta-gaztelua eraisten duen haize-bolada bezalakoa izan zen. Eragiketa espekulatiboak suposaketa faltsuetan oinarrituta zeuden. Egiatzko sostengurik gabeko rating-ak, berme ustelak, inola ere bete ezin ziren proiektzioak... Horrek guztiak mesfidantza olde izugarria eragin zuen, eta zurrunbilo horrek denok harrapatu eta lurreratu gaitu. Eta are gauza okerragoa: ataka gaiztoa eragin dutenak epailearen aurrean agertu ez izanaren sentsazioa dugu (Madoff izan ezik, beharbada), guztiz ziur gaudela ez esateagatik, eta haien gaizki egingenagatik ordainduko ez duten sentsazioa ere bai.

Geroa Bairen neurriak

1. Legezko arau berri guztiak bultzatu eta sustatzea, merkatuetan etekin edo galera handiak sor ditzaketen jarduerak ahalik eta gehien oztopatzeko, inbertsioa aurrez ordaindu ez bada, hau da, bukaeran aldeengatik likidatzen diren jarduerak egitea.

2. Ekimen guztiak bultzatu eta sustatuko dira, rating-agentziak interes publikoarekin bat jotzen ari direla ziurtatzeko, eta presio-talde pribatuen interesen gaineko zalantza oro ezabatzeko. Bokazio horretako rating-agentzia europar bat sustatzea.
3. Europako Banku Zentralaren erreforma sustatzea, Estatuari zuzeneko diru-maileguak egiteko, haien zorra finantzatze aldera. Era berean, ekimen guztiak sustatuko dira, Europako Banku Zentralak Europako bankuei kobratzen dien interes-tasa aldatzeko; hau da, ez dadila orain arteko 5 1 izan, bankuek diru horri zer erabilera ematen dioten kontuan hartu gabe, baizik eta dirua zertara bideratu, halako interes-tasa ezarriko zaie: hau da, % 1en mantenduko da, enpresentzako kreditua handitzeko erabiltzen bada, ez bakarrik enpresa handientzako, ertain eta txikientzako eta autonomoentzako ere baizik. Tasa nabarmen igoko da, Estatuaren zor publikoa erosteko erabiltzen badira.
4. Nazioarteko transakzioetan “Tobin Tasa” ezar dadin sustatzea.
5. Zerga-karga bereziak jartzea parabisu fiskaletan sarturik dauden kapitalentzako.
6. Geroa Baik, halaber, arau berri ororen alde egingen du, zuzendari handien ordainsari aldakorrak epe ertaineko eta luzeko helburuei lotzea bultzatzeko. Eman etsenplua, eta betebeharra izan dadila, Estatuak dirua utzi behar izan dien entitateak badira.
7. Zuzendariari dibidenduak banatzeko eta bonus edo kalte-ordainak ordaintzeko debekua sustatzea, diru publikoa jaso duten bankuetan eta kutxetan, dirua itzultzen ez den bitartean.
8. Hipoteka-legeria erreformatzearen aldeko bultzada, familiaren helbidea izateko etxebizitzaren hipoteketan etxebizitza ordainketan ematea sartzeko.
9. Krisitik ikasbideak ateratzeko ekintza guztiak sustatuko dira, eta , era berean, epe ertaineko eta luzeko konpromisoaren balioak arlo guztietan (hezkuntzan barne) sendotzeko ekintzak, oportunitatearen, epe laburreko irabazien eta *pelotazoaren* aurrean.
10. Zigor Kodean behar diren aldaketa guztiak bultzatzea, arlo horretan izan diren banako portaera bereziki kaltegarriak identifikatzeko eta haien kontra penalki jotzeko.

Baina kontua ez da bakarrik (oso garrantzitsua izanda ere) krisia zerk eragin duen aztertzea, etorkizunean berriz ere halakorik ez gertatzea saiatzeko, baizik eta funtsezkoa da argi izatea krisiak zer ondorio izan dituen, eta horrek zer eztabaida eragin duen.

Krisiaren ondorio nagusiak

1. Nazioarteko krisia, baina Espainiako Estatuan *made in Spain* erantsi zaio; higiezinaren sektoreko krisia, alegia. Horrek izugarri geldiarazi du jarduera ekonomikoa, mesfidantza handia nagusitu delako eta banku-finantzaketa izugarri murriztu delako. Eta, agur egun, konponbidetik oso urrun daude bai mesfidantza bai kreditua eskuratzeko murrizketa.
2. Jarduera ekonomikoa gainbehera etorri izanaren ondorioz, Estatuak langabeziak gora egin du ikaragarri, eta Nafarroan ere oso larriki hazi da.
3. Horren ondorioz, hiru krisi-urte honetan, Estatuak kontu publikoen egoera oso nabarmen okertu dira, bai eta Nafarroakoak ere, zerga-bilketa jaitsi eta gastu publikoak handitu baitira; batez ere, langabezia-saria eta Estatuaren zor publikoaren interesak ordaindu beharra.

4. Urteotan, Nafarroako Gobernua eta Gobernu Zentrala gertakarien atzetik joan dira eta ez dute egiazki eztabaida mahai gainean jarri; egia esan, eztabaida hori deserosoa zaie, 2011n krisitik ateratzen egonen ginela uste baitzuten, behin sukarraldia gainditutakoan, kontu publikoak berez hobetuko zirelakoan. Usteak erdiak ustel, ordea. Baina, datu guztien arabera, krisia denbora puska bat gehiago geldituko da gure artean.
5. Krisia luzatu izanak alarma gorri guztiak piztu ditu Estatuko kontu publikoen gainean izan ez ezik, Europa osokoetan eta AEBetakoetan ere bai. Ezinbestekoa da, beraz, muinaren eztabaidari heltzea; hots, nola lortu kontu publikoak orekatzea, gure konpromisoak betetzeko gauza izateko.
6. Laburbilduz, krisiak administrazio publikoak (Nafarroakoa, estatukoa) ahuldu ditu: horrenbestez, gaur egun duela hiru urte baino beharrezkoagoa zaie munduko inbertitzaile handiengana jotzea, dirua mailegutan lortzeko eta konpromisoak ordaintzeko. Bankura joaterakoan edonori gertatzen zaigun bezalaxe, bankuari konfiantza eman behar diogu gure zorrak ordaintzeko gauza izanen garela; jakinik, gainera, zenbat eta konfiantza gutxiago sortu, interes-tasa handiagoa ezarriko digutela.

Geroa Bairen iritiz, hori arras eztabaida ideologikoa da, kontua baita erabakitzea zer eginkizun dagokien etorkizunean administrazio publikoei eta nola banatzen diren ahaleginak eginkizun hori gauzatzeko. Geroa Baik, arlo honetan, hiru jarduketa-ardatz aldeztu ditu argi eta garbi:

1. Enplegua sortzeko eta lan-harreman bidezkoak antolatzeko bultzada tinkoa.
2. Ongizate Estatuari eustea.
3. Ahaleginak elkartasunez banatzea eta kontu publikoak sendotzea.

Hiru ardatzak ondoko hiru atalotan jorratuko ditugu. Ondoren, sektorez sektoreko gainerako atalak azalduko ditugu.

3.2. Enplegua sortzeko bultzada tinkoa eta lan-harreman bidezkoak

Krisiak langabezia-tasa onartezinak ekarri ditu Espainiako Estatura, eta Nafarroara ere bai. Herritarren kezka nagusiak, gaur egun, langabezia eta egoera ekonomikoa dira; alde handiz, gainera.

Estatuak Europar Batasuneko langabezia-tasarik altuena dauka; alde handiz, gainera. Nafarroan ere langabezia-tasa oso altua da eta kezka handia eragin du.

Estatuaren eta Nafarroaren abiapuntua oso desberdina denez, Geroa Baik helburu hau proposatzen du; hots, Estatuan langabezia-tasa nabarmen jaitea, Europar Batasuneko batez bestekoaren parean egon dadin, eta Nafarroari dagokionez, langabezia-tasa ere jaitea Europako herrialde garatueneren batez bestekoaren parera iristeko.

Helburu hori lortuko bada, Gobernuaren ardura da, Ongizate Estatua finkatzeko behar den enplegu publikoari eusteaz gainera, behar bezalako baldintzak ere ezartzea ekimen pribatuak enplegua sor dezan. Horrenbestez, funtsezkoa da:

1. Gero eta jende gehiago beren enpresa sortzeko prest egotea, aldi berean enplegua ere sortzeko.

2. Lehendik dauden enpresak, ahal den neurrian, mantentzeaz gain, garatu ere garatu daitezela, enplegua finkatzeko eta, are gehiago, baita enplegua sortzeko ere.
3. Behar bezalako baldintzak egotea, epe luzerako proiektuak dituzten enpresa berriak iristeko eta, haien bidez, enplegu berria ailegatzeko.

Geroa Bairen proposamenak enplegua sortzeko

1. Enpresa txikiei eta ertainei, eta enpresa-sortzaileei, laguntzeko programa bat ezartzea negozioaren plangintzan eta kudeaketa estrategikoan eta operatiboan, finantza-kudeaketan eta bankuekiko negoziazioan, eta berrikuntzaren eta nazioarteratzearen kudeaketan. Hartara, eskualde bakoitzean hurbileko bulego sare bat ezarriko da, eskualdeetako Mankomunitateekin, tokiko garapen Agentziekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin hitzarmenak eginez, enpresa txikiek eta ertainek eta enpresa-sortzaileek zerbitzua ezagut dezaten eta hurbil senti dezaten. Gakoa hau da: ez dadila ideia onik gauzatu gabe gelditu, enpresa-sortzaileak edo enpresa txiki eta ertainak ez jakiteagatik laguntza non eskatu edo zerbitzu ona ez jasotzeko.
2. Aurreko programaren baitan, ekonomia sozialeko ekimenei berariazko bultzada ematea. Ekonomia sozialarekin lotuta dauden enpresa-erakundeekin lankidetzan estuan aritzea.
3. Tamainari eta garrantziari begira, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sor dezaketen proiektu berriak ezartzen laguntzea. Batez ere, laguntza emanen zaie estrategikotzat jotzen diren eta ezagutzen eta goi-mailako teknologian oinarriturik dauden sektoreei (energia, nekazaritzako elikagaiak, osasuna eta bizitza, ingurumena, zerbitzu aurreratuak, automobilgintza eta goi-mailako teknologiako industria-sektoreak Nafarroari dagokionean), baina beste alorretako proiektu onak bazterrean utzi gabe.
4. Enpresa handiekin leialtasunezko lankidetzan bideratzea, elkarren arteko konpromisoan oinarrituta. Botere publikoak enpresa haien beharrak ezagutu behar ditu eta asetzen saiatu, eta, ordainez, enpresei hau guztia eskatuko zaie: inbertsioak finkatzea, gero eta balio erantsi handiagoko prozesuak txertatzea, eta enplegu egonkorra eta gero eta kalitate handiagokoa sortzea.
5. Behar diren bitarteko guztiak ezarriko dira, enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak aurreikusitako xedeetara bidera ditzaten (batez ere, epe luzerako inbertsioa eta enplegu egonkorra sortzea).
6. Behar diren bitarteko guztiak ezarriko dira, administrazio publiko guztiek (Estatukoak, autonomikoak eta tokikoak) beren zorrak Berankortasun Legeak ezarritako epeen baitan ordain ditzaten.
7. Behar diren jarduketak guztiak garatzea, enpresa txiki eta ertainentzat finantzaketa egokia eta nahikoa bermatzeko, dela proiektu berriak abiarazterakoan, dela proiektuak gauzatzekoan. Enpresa bideragarrien balantzeak berregituratzeari arreta berezia ematea, bai eta enplegua sortzen duten inbertsioei eta enpresak nazioarteratzeari ere. Era berean, arreta berezia jartzea enpresa erosi nahi duten zuzendariengan eta langileengan, jabeek aurrera jarraitu nahi ez badute.
8. Behar diren programa guztiak bultzatuko dira, lanpostuko prestakuntza etengabearen maila hobetzeko, Europar Batasuneko herrialde gidarien mailalara iriste aldera.
9. Enplegua sortzeko pizgarri fiskalak handitzea, lantaldearen iraunkortasun handiagoari lotuta.

10. I+G+b-ri eta nazioarteratzeari lotutako pizgarri fiskalen jarraimendua egitea eta pizgarriak etengabe hobetzea.
11. Gutxienez etekinen laurden bat langileen artean (zuzendariak kanpo utzita) banatzen dituzten enpresentzako pizgarri fiskalak.
12. Unibertsitateetako, goi-mailako lanbide heziketako ikastetxeetako eta zentro teknologikoetako lehentasunak enplegu egonkorra sortzera bideratzea, eta gazteek prozesuan parte har dezaten sustatzea. Ordainsari-sistemak horren arabera aldatzea.
13. Erkidego bakoitzean etorkizuneko bere sektore estrategikoekin lotuta dauden goi-mailako ezagutza berariazkoak lehenestea (lanbide heziketa eta unibertsitatea).
14. Ikerketari buruzko eskumen osoa Nafarroaren eskuetan uztea, Foru Hobetzearen 44.7 artikulua betetzeko. Izan ere, Nafarroatik bertatik kudeatzeak aukera emanen du ikerketa gure behar eta lehentasunetara askoz ere hobeki moldatzeko.
15. Euro-erregioak bultzatzea, sistema ezin hobea baita autonomia erkidegoek, ekonomian, masa kritiko eta proiektio handiagoa eskura dezaten, ez bakarrik Europan, mundu osoan baizik. Arlo horretan, Nafarroa, Eusko Autonomia Erkidegoa-Akitania arteko euro-erregioa bultzatzea, ardatz kantauriar eta atlantikoaren baitan, Europako garrantzi ekonomiko handieneko guneekin gure harremanak hobetze aldera: hau da, Paris eta haren eragin-eremua, Londres eta haren eragin-eremua, eta Rhin ibaiaren ibaia eta haren eragin-eremua.
16. Derrigorrezko hezkuntza bidearen lehentasunak berrikustea. Bestelako balioak azpimarratzea: irekitasuna, sen kritikoa, ahalegina eta arriskuak hartzearen aldeko jarrera; halaber, epe luzerako proiektu batekin engaiatua dagoen enpresa-sortzailearen garrantzi soziala eta balorazio ona nabarmentzea. Era berean, bestelako trebetasunak ere azpimarratzea: talde-lana, jendaurrean hitz egitea eta harreman sozialak, eta, bi hizkuntza berekiak ziurtatzeaz gain (euskara eta gaztelania Nafarroan), ingelesezko maila altua (ahozkoa eta idatzia) bermatu behar da, eta, ahal den heinean, beste hizkuntza bat ere bai.
17. Epe luzerako proiektuekin engaiatuak dauden enpresa-sortzaileak gizartean aintzat hartzeko jarduketa espresuak bultzatzea.
18. Eskola-uztea ahalik eta gehien murriztea eta, aldi berean, behar diren jarduketak egitea, gazte gehiagok, DBHz gain, goi-mailako ikasketak ere buka ditzan, bai unibertsitatekoak bai lanbide heziketakoak.

Aldi berean, krisi latzak harrapatuta gauden honetan, lan harremanetarako esparru egokia ziurtatu beharra dago, bai eta enplegu-sistema egokia ere, lan-kolokatasunari ahalik eta hobekien aurre egiteko eta, lehiakorrak direlako eta gizartea kohesionatua dutelako, erreferentzia gisa ditugun herrialdeen mailatik gero eta hurbilago egoteko.

Geroa Bairen proposamenak enplegu sistemak hobetzeko

1. Enplegurako Zerbitzu Publikoak berrikusi eta sendotzea, langabeak laneratzeko eta lanera bideratzeko neurriak berraztertuta eta hobetuta.
2. Enpresek enplegurako zerbitzu publikoen zeregina, egitekoak eta baliabideak hobeki ezagutzea, dibulgazio eta sentsibilizazio ekintzen bitartez.
3. Langabe bakoitzarentzako moldatuta dauden ibilbideak garatzea: abiapuntua zehaztea (adina, alde aurreko prestakuntza, alde aurreko lan esperientzia, norberaren

- inguruabarrak eta interesak), helmuga-puntua ezartzea, tutoretza-prozesua eta bidean jarraimendua egitea.
4. Gaitasun gutxieneko langabeen prestakuntza handitzea, etorkizuneko sektoreetan espezializatu daitezela sustatuta. Enpresek aipatu prestakuntzaren betebeharrak zehazteko prozesuan parte har dezaten bultzatzea.
 5. Langabeei aholkularitza ematea, enpresak sortzeko, nork bere lana sortzeko eta ekonomia sozialerako.
 6. Enplegurako zerbitzu publikoek egindako lan-bitartekaritzen kopurua goitik behera handitzea (zerbitzu publikoen parte-hartzearen %, guztira egiten diren lan kontratazioen gainean).
 7. Gazteen artean lan mugikortasuna sustatzea.
 8. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna maila guztietan sustatzea (aukera-berdintasuna, ordainsariak....).
 9. Lan-istripuen aurkako jarduketak bultzatzea.
 10. Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren transferentzia Nafarroaren eskuetan uztea, bai eta langabezia-laguntzak eta langabezia-sariak ere.
 11. Sindikaturik ordezkatuenean kontzeptua zehazten duen estatu-legea aldatzea, Nafarroako Gobernuak ELA eta LAB gizarte-hitzarmenatarako prozesuetan sartu behar izan ditzan, bi sindikatuen artean Nafarroako langileen % 35 ingururen ordezkariak baitute.

3.3. Ongizate Estatuari eustea

3.3.1 Ongizate Estatuak, Geroa Bairen irudikoz

Geroa Baik argi dauka Ongizate Estatuak gizarte integrazioa eta zilegitasun politikoa sortzen dituela; desberdintasunak murrizten ditu, gizarte irekiaren bermea da eta herritar guztientzako aukerak sortzen ditu. Halaber, ongizate sozial eta ekonomikoa gizarte osora zabaltzen du (guztiek aplikatzen zaie), bizi-kalitatea hobetzen dituelako eta herritarren oinarrizko beharrak adin guztietan estaltzen dituelako: gaixotasunean eta oinazean, minusbaliotasuna, miseria, ezjakintasuna, enplegua galtzea, zahartzaroan eta mendekotasuna.

Geroa Bairen irudikoz, ongizate-estatuak eraitsi nahi duenak era berean jakin behar du gizarte moderno, aurreratu, bidezko eta demokratikoaren kontzeptua eraisten duela. Iritzi publikoak, ordea, ez du holako murrizketarik onartuko, ongizate-estatuari konkista sozial utziezina irizten baitio. Geroa Baik bat egiten du herritarren iritziarekin, XXI. mendean ez baita inola ere onargarria lehen, bigarren eta, are gehiago, hirugarren mailako herritarrak izatea.

Geroa Bairen irudikoz, Ongizate Estatuak funtsezkoa da gure bizikidetzarako balio oinarrizkoenak habetzeko: hau da, gizakiaren aurrerabidea, aukera-berdintasuna eta justizia soziala.

Ongizate Estatuaren kudeaketan, Geroa Baik argi dauka administrazioak, gizartearen gainerakoak bezala, arrazionaltasun, produktibitate eta kalitate irizpideen arabera jokatu behar duela eskaintzen duen zerbitzuan, baliabideak ahalik eta hobekien erabilia, eta zerbitzu publikoetan lanean ari den jendearen profesionaltasun eta eraginkortasun maila handiagoak exijituta.

Aldi berean, Geroa Baik herritarrengandik espero du haien eskura jarrita dauden baliabide publikoak arduraz erabiltzea eta, ildo horretan, zorrotz jokatu du zerbitzu publikoen erabilerari lotuta dauden portaera irregularrei eta/edo iruzurreko portaerei jazartzerakoan eta haiek guztiak zigortzerakoan.

Bada aldaketarako beharra; handia, gainera. Ikusi, bestela, nolako egoera dagoen: zerbitzu publikoak gero eta gehiago hondatzen ari dira, murrizketa etengabeek areagotuta, gainera; gero eta pribatizatuagoak daude; kudeaketa publiko iluna; ezgaitasuna zabaltzen ari da. Eta hori guztia sektorerik ahulenek sufritzen dute, batez ere.

Egunoa baino gizarte-eredu bidezkoagoa eta solidarioagoa egingarria den bezala, posiblea da administrazio publikoek zerbitzu publikoak etekin partikularren gainetik lehenestea, aberastasuna hobeki banatzeko zerga-politikak aplikatzea, eta bidea elkarrekin egitea, gizarte-berdintasun handiagoa lortze aldera eta aberastasuna hobeki banatze aldera.

Geroa Bairen lehentasunak

1. Geroa Bairen irudikoz, ongizate-estatuak hiru zutabe ditu eta hirurei nahitaez eutsi egin behar zaie. Hona hemen: osasun arloko aukera-berdintasuna, hezkuntza arloko aukera-berdintasuna eta gizarte-babesa.
2. Geroa Baik uste du gizarte-eskubideak hain direla garrantzitsuak herritarrentzako, non eskubide horiek berekin dakartzaten ahaleginak (bai kolektiboak bai finantzarioak) onartu behar baitira. Erabiltzen diren finantzaketa eta ekitate irizpideak objektibatu behar dira. Herritarrei argibide handiagoa eman behar zaie, horixe baita berdintasuna bermatzeko biderik onena zerbitzu publikoetan sartzeko.
3. Egun gizartean eta ekonomian dagoen egoera ikusita, eta epe erdira eta luzera demografian aurreikustekoak diren aldaketak direla-eta, Geroa Bairen iritziz funtsezkoa da etorkizunari aurrera hartzea eta behar bezalako oinarriak ezartzea, Ongizate Estatu finantzatzea bermatzeko, atal honek dakarrenarekin bat.
4. Geroa Bairen iritziz, orain arte, ordain-izaerako neurriak pentsatu dira eta sistema haietan oinarrituta dago; baina, neurri haiez gain, prebentzio arlokoak ere behar dira. Garrantzi handia eman behar zaie bai plangintzari bai prospektiba-analisiei.
5. Geroa Bairen irudikoz, era berean, *Ongizate positiboaz* ere hitz egin beharko genuke, eta horretan ekarpena egiten dute herritarrek berek eta beste eragile batzuek ere, bai eta administrazioak ere. Zuzeneko diru-laguntza beharrezkoa da eta, horrekin batera, ahal den tokian, giza kapitalean inbertitu beharra.

Geroa Baik jakin badaki aurreko guztia oso konplexua dela eta inplikazio arduratsuak behar direla egungoak bezalako garaietan, gizartean zalantza nagusi den honetan. Geroa Baik eztabaida zorrotza eta lasaia egin nahi du, gogoeta eragitekoa, ongizate-estaturanzko bidea egiteko: ongizate-estatu mugiezina izan dadila, ongi finantzatzeko modukoa, eta osagai nagusiak zutik dituela, aukera izan dezagula Ongizatean eta Giza Garapenean eredugarri ditugun herrialdeen mailara iristeko, gizarte haiek ere izaten baitira bizi-itxaropen handienekoak, prestakuntzarik handienekoak, errenta-mailarik altuenekoak eta pobrezia-maila txikienekoak.

3.3.2 Proposamenak: hezkuntza, osasuna eta gizarte-babesa

Hezkuntza

1. Inbertsioa. Hezkuntzara diru gehiago bideratzea, hezkuntza funtsezkoa baita gizarte kohesionatzeko eta ekonomikoki lehiakorra izateko. Estatuaren gastu publikoa ELGE erakundeko (herrialde garatuak eta azpigaratuak daude) herrialdeen batez bestekoaren azpian dago, eta horrek hezkuntzara atzerapena dakar.
2. Tutoreak eta sendotzea. Haur eskolatzera diru gehiago bideratzea, eta diru gehiago ere lehen eta bigarren hezkuntzako tutoreak eta sendotze-taldeetara.
3. Kudeaketa hobetzea. Kontrol gehiago, irakaskuntza itunduak ikasleak aukeratu ez ditzan. Lehentasunak hobeki ezartzea, ikuspegi integratuak erabilia eta ezarrirako politiken egiazko eragina neurtuta.
4. Edukiak desberdintzea. Eduki-bide desberdinak irekitzea unibertsitatean sartu nahi duten gazteentzako eta prestakuntza orokorra nahi dutenentzako. Ikastetxeen eta institutuen autonomia ekonomikoa. Hezkuntza-gastua askoz ere eraginkorragoa da, ikastetxeak gastuaz arduratzen direnean.
5. Hezkuntza eta prestakuntza sistemen eraginkortasuna eta kalitatea handitzea, ezagutzaren gizartearekin eta ekonomiarekin bat. Lanbide premiak. Etorkizuneko lizentziatuen edukiak lanbide-beharretara egokitzea, haien enplegugarritasuna hobetze aldera.
6. Hezkuntzako aukera-berdintasuna egiazki baliaraztea unibertsitatean sartzekoan, non unibertsitate-ikasketarik ez duten gurasoen seme-alabek bost aldiz probabilitate gutxiago dute unibertsitatean sartzeko guraso unibertsitarioen seme-alabek baino.

Osasuna

1. Aurrea hartzeko politikak eta osasunerako hezkuntza sendotzea. Behar diren ekintzak garatuko dira, herritarrak, gaixoak eta zaintzaileak osasunerako hezkuntzan hezteko. Osasun komunitarioa bultzatzea, lehen laguntzako taldeei laguntza tinkoa emanda, eremuan eremuko biztanleriaren osasun maila azkar ebalua dezaten eta nagusi diren patologien gaineko azterlanak egin ditzaten.
2. Herritarren artean, gaixotasun zabalduenekin lotuta dauden portaera, aztura eta ohitura osasungarriak sustatzea. Honatx gaixotasun zabalduenak: tabakismoa, alkoholismoa, hipertentsioa, sedentarismoa, osasunerako arriskua dakarten sexu-portaerak.
3. Osasun zerbitzuen antolaketa, kalitatea eta irisgarritasuna nabarmen hobetzea. Mendetasun handian dauden adinekoentzako eta gaixoentzako laguntza nabarmen hobetzea, bai eta patologia kronikoak dituzten gaixoentzako laguntza ere.
4. Farmazia. Kalitatea eta segurtasuna hobetzea. Patente-sendagaien prezioa jaitea eta generikoak erabil daitezen sustatzea. Sendagaiak zentzuz eta koste arrazoigarrian erabil daitezen sustatzea.
5. Ikerketa gehiago eta hobea. Neurriak hartzea, farmazia-industriaren I+G+b-an inbertsio handiagoak egitea sustatzeko.
6. Teknologia berriak. Teknologia berriak eta osasun-zerbitzuaren zorroan sartu nahi diren sendagai berriak aztertzea, koste eta eraginkortasun irizpideak erabilia.
7. Unidosia. Sistema sendotzea, sendagaiak aiez ale erosteko eta kontsumitu behar direnak bakarrik erosteko.
8. Giza baliabideak. Sendagile eta erizain gehiago, eta osasun langileentzako laguntza handiagoa. Sendagileak osasunaren kudeaketaren erantzule egitea.
9. Ziber-osasuna. Informazioaren teknologiak osasungintzan sustatzea, bisita medikoak eta burokrazia-gastuak aurrezteko. Horrela, osasun etxera egiten diren bisiten 5 30 murriztu daitezke. Irisgarritasuna eta gaixoen eta osasun langileen arteko harremana

hobetzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta telemedikuntza erabiltzea bultzatuta. Errezeta elektronikoa behingoan ezartzea.

10. Eraginkortasun handiagoa, drogek erakarritako osasun-arazoei aurre egiteko. Prebentzioa sendotzea.

Gizarte Babesa

A. Langabezia-laguntzak. Pentsioak. Oinarrizko errenta. Laguntza bereziak.

1. Langabezia-laguntzak. Geroa Bairen irudikoz, egungo langabezia-laguntzen araubidea zola bat da, gutxienezkoa, eta inola ere ezin izanen dira murriztu. Alde horretatik, zenbatekoak eta epeak handitzearen aldeko neurri guztien alde egingen du, bai eta laguntzak malgutasun hobezko erabiltzearen aldeko neurriak ere.
2. Pentsioak. Geroa Bairen iritziz, bukatu den legealdian izaniko azken berrikuspenaren ondotik, pentsioen egungo lege-esparrua gutxienezko kontu bat bezala hartu behar da, eta ez da inola ere okertu behar. Aurreko puntuan bezala, Geroa Baik sistemaren kalitatea hobetuko duten neurri guztien alde egingen du.
3. Oinarrizko errenta. Oinarrizko errenta biziraupeneko laguntza bat da eta muturreko pobrezian dauden etxeei ematen zaie. Errenta hori kobratu izan ohi duten taldeei iraupen luzeko langabeziak jota dagoen jendea eranstean ari zaie, behin langabezia-laguntzak bukatzen zaizkienean; eskariak, beraz, nabarmen egin du gora, krisiak eraginda. Geroa Bairen irudikoz, diru gehiago bideratu eta sistema hobeki antolatuta behar da, oinarrizko errenta eraginkorra eta azkarra izan dadin, eta beharrik handienez dagoen jendeari helarazteko. Oinarrizko errenta, izan ere, prebentzio-lanabes egokia da, jendea gizarte kanporaketa larriagoetara ez iristeko.
4. Krisia luzatzen ari dela ikusita, laguntza jasotzeko denboraldiak luzatu beharko liriateke (laguntza berritzeko denboraldiak arinduta), ez baitago lan-aukerarik.
5. Etxebizitza galtzeak gizarte kanporaketan gelditzeko arrisku handia dakarkio jendeari (kaleratzeak, ordaingabeak); horrenbestez, berariazko laguntza-sistema bat ezarri beharko litzateke alokairua ordaintzen jarraitzeko edo etxebizitza ordaintzen jarraitzeko, zailtasun bereziak dituzten familientzako.
6. Oinarrizko ekipamenduentzako edo premia bereziko ondasunentzako laguntza berezietarako kontusailak diru gehiagoz hornitzea eta laguntzak jasotzeko kudeaketa arintzea.
7. Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko elkarlana sendotzea, lan-merkatuarekiko bitartekaritza eraginkorra egite aldera, pobrezian eta kanporaketan dauden langabeen inguruabar bereziak eta profila kontuan hartuta (kualifikazioa, bestelako arazoak, eskuragarritasuna).
8. Lehentasun berezia eman behar zaio gazte langabe ez-kualifikatuentzako prestakuntzari, bekak antolatuta.
9. Enplegurik ez dagoen egoera honetan, merezi du lan prestakuntzaren eta gaikuntzaren alde egitea (beken bidez), kanporaketan dauden iraupen luzeko langabeak enplegu-aukerak daudenentzako prestatze aldera.
10. Pobrezian dagoen jende askok ezkutuko ekonomian aritzeari esker diraute bizirik. Funtsezkoa da, beraz, behar bezalako bideak sustatzea aipatu enplegua azalera ateratzeko.

B. Gizarte Zerbitzuak

1. Lehen laguntzako gizarte-zerbitzuen sarea gainezka dago erabat, gero eta jende gehiago zailtasunean dagoelako eta mendekoentzako laguntzak eragindako zereginak nabarmen ugairu direlako. Beharrezkoa da, hortaz, sarea osatu eta indartzea, eta, era berean, baliabide arinez hornitzea, eskariari erantzun egokia emateko.

2. Jendea gizarteratu eta laneratzeko taldeen sarea sendotzea, zailtasun handienak dituzten familientzako laguntasun-lanak indartzeko.
3. Nafarroako gizarte-entitateek sare garrantzitsu bat osatua dute zailtasun bereziak dituzten taldeei premiazko eta zuzeneko laguntza emateko (buruko osasuna, drogamenpekotasuna, adingabeak, etorkinak). Haietako askok erantzunik arinena ematen diete talde batzuek dituzten behar gorriak. Beraz, finantzaketa egonkorra bermatu beharko litzateke, ekintzari jarraipena emateko eta ekintza bera hobetzeko.
4. Zerbitzu batzuk kudeaketa pribaturantz bideratzen ari dira, ekonomikoki eraginkorrak direlakoan eta dirua aurrezten delakoan. Hori oso arriskutsua da gizarte-zerbitzuetan, erabiltzaileak ahulak baitira eta ez gaitasun txikiagoa dute jasotako laguntza ebaluatzeko (mendekoa, buruko osasuneko arazoak dituzten pertsonak, etxegabeak, adingabeak). Agintariek erantzukizun publikoa dute aipatu zerbitzuen kalitatea bermatzeko, eta ez liokete bakarrik zerbitzuen prezioari begiratu behar.
5. Aukera-berdintasuna. Oker handia litzateke krisi garaian aukera-berdintasunaren arloan erdietsitako lorpenak bazterrean uztea. 0-3 urteko estaldura handitu behar da. Emakumeak gehienbat ari diren sektoreen enplegu-kalitatea hobetu behar da. Lana eta familia bateragarri egin behar dira, berariazko erregulazioen bidez.
6. Immigrazioa. Saihestu egin behar dira atzerriko jendea laneratzeko prozesua hondatzea, atzerritar langabeak lanean sar daitezen sustatuta. Adingabeen eskola-errendimendua sendotu behar da, eskola-porrotak eragozteko.
7. Menpekotasuna. Mendekoentzako laguntzak arintzea eta eraginkor egitea. Mendekoei laguntzeko zerbitzu-sarea zabaldu dadin sustatzea, familiek beren ematen duten laguntza osatzeko (eguneko zentroak, egonaldi laburreko egoitzak, atsedeen hartzeko zerbitzuak).
8. Buruko osasuna. Gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa sendotzea, buruko osasun-arazoak dituzten pertsonentzako laguntza psikosoziala sustatzeko. Buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza-zerbitzuak sustatzea eta senitartekoei laguntza ematea.
9. Minusbaliatuak laneratzeko; hartara, behar diren neurriak hartu behar dira minusbaliatuen eta minusbaliotasunik gabeko jendearen jardura-tasaren artean dagoen alde handia. Gizarteratzea lortzeko, hein handian laneratu beharra dago, lanpostu duin bat lortuta.
10. Minusbaliatuak barnerratzeko ikuspegia legerietan, politiketan, estrategietan eta ekintzetan txertatzea, bereizketaren aurka.
11. Zerbitzu publikoak beste arazo batzuek eragiten dituzten minusbaliotasun-egoeretara moldatzea; esaterako, buruko osasun-arazoak, garuneko mina eta gaixotasun arraroak.

3.4. Elkartasuna ahaleginetan eta kontu publiko sendoak

Arestian esan dugun bezala, krisi-urteok kalte nabarmena egin diete Estatuko eta Nafarroako kontu publikoei. Ez dirudi, gainera, krisiak gure artetik azkar alde eginen duenik.

Testuinguru horretan, garrantzi handia duen eztabaida etorri zaigu plaza erdira, eta eztabaidaren zurrunbiloan gauza asko nahasten ari dira: fiskalitatea, Ongizate Estatu eta kontu publikoen egoera. Horrez gain, ez dezagun ahaztu Nafarroa eta Estatuaren arteko harremanak Hitzarmen Ekonomikoaren bidez araututa daudela.

Hauxe da, beraz, Geroa Bairen jarrera:

1. Geroa Bai Ongizate Estatuari eustearen eta huraxe finkatzearen aldekoa da, aurreko atalean zehatz azaldu dugun bezalaxe. Nolanahi ere, Geroa Baik dio gastu publikoak ahalik eta eraginkortasunik, gardentasunik eta erantzukizunik handienarekin bat

kudeatu behar dela, eta urteko aurrekontuetan aurreikusitako gastuetara moldatu beharra dagoela.

2. Geroa Baik funtsezkoa irizten dio administrazio publikoetako kontu publikoak sendoak izateari; baina, aldi berean, dio, kontu publikoak sendoak izan behar direla, Ongizate Estatua bermatzeari eta finkatzeari kalte egin gabe.
3. Geroa Baik dio diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak hartu beharko direla, aurreko bi puntu horiek ahalbidetzeko. Erabaki horiek printzipio hauek izanen dituzte oinarri: a) Funtsezko printzipioa progresibotasun fiskala izanen da; b) Iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka sakonagoa tinko sustatzea eta borroka horretara diru gehiago bideratzea; c) Ondarearen gaineko zerga aldezea; d) Behar bezalako neurriak hartzea, aurrezkitik eratorritako errenten eta lanetik eratorritako errenten zerga-ordainketa hurbiltzeko; e) Behar bezalako neurriak hartzea, enpresa-errenta jakin batzuek ordaindu beharko luketena bultzatzeko, beren maila baino askoz ere gutxiago ordaintzen baitute; f) Legeetan behar diren aldaketa guztiak egitea, ingeniariaritzaren fiskaleko formulak ezabatze aldera, errenta handiei zerga gutxiago ordaintzeko aukera ematen dietelako (SICAV sozietateak, adibidez); g) Berehalako batean zerga bereziak ezartzea, baita urte urtekoak ere, herritarren ondarearen arabera, zerga-bilketatik ateratako dirua aski ez bada Ongizate Estatua bermatzeko eta finkatzeko, ezta finantza-ratioak betetzeko ere.
4. Geroa Bairen filosofiak, beraz, erro-errotik egiten die kontra egungo zergak aski direla diotenei; kontra ere, gehien gastatu daitekeena zergen bidez biltzen den kopurura doitu behar dela esaten dutenei, ez baitiote inola ere erreparatzen zer-nolako kaltea egingen dion Ongizate Estatuari.
5. Geroa Baik tinko aldeztu du elkartasun-balioa. Horrekin bat, Geroa Baik lan egingen du Nafarroak bere Ongizate Estatua finka dezan eta gure herrialdea finantzei begira indartsua izan dadin ahaleginduko den herritarren alde, ekonomikoki konprometitzeko prest dagoen gizartearen alde (bakoitza bere baliabideen arabera), Nafarroa hura posible izan dadin.

Jarrera horrekin bat, Geroa Baik honela jokatu du:

1. Geroa Baik tinko aldeztu du aipatu filosofia Estatuko aurrekontu orokorren eztabaidan eta bozketan.
2. Geroa Baik beharrezkoa deritzo irizpide objektiboak finkatzeari, kontu publikoak sendoak izan daitezen bermatze aldera; ez dator bat, ordea, Nafarroako eta Estatuko Gobernuak datozen urteotarako itundu dituzten gehienezko defizit-mugekin. Geroa Bairen irudikoz, mugek ez lukete izan behar araubide batuko autonomia-erkidegoekin itundu diren berberak, autogobernu-maila oso desberdina baita. Urteko defizita beste bi irizpide objektiborekin batera erabili beharko litzateke, gutxienez; batetik, zorraren bolumen metatuarekin, eta, bestetik, diru-sarrera arrunten estaldura-ratioarekin, betiere datozen hiru urteotako zorraren zerbitzuarekiko. Geroa Baik irmo aldeztu du bere ikuspegia berrikitan onetsitako konstituzio-erreforma garatuko duen lege organikoaren eztabaidan, eta, bidenabar esanda, erreforma horren aurkakoa da.
3. Muga horiekin ados ez bada ere, Nafarroak muga horiek betetzearen aldekoa da Geroa Bai, eta espero du Estatuko gainerako autonomia-erkidegoek ere betetzea. Arlo honetan, Geroa Baik gogora ekartzen du Nafarroak Estatuarekiko dituen betebeharrak ekonomikoak hitzarmen ekonomikoan zehaztuak daudela; ezta, beraz, bestelako,

betebeharrik. Horrenbestez, Geroa Baik ez du inola ere Madrilek ezar lezakeen bestelako betebeharrak ekonomikorik onartuko, Estatuko beste administrazio batzuetan dauden arazoak konpontze aldera. Hitzarmen ekonomikoarekin bat, beraz, Nafarroak urteko ordainketa hori egin behar dio Estatuari, baina hori alde batera utzita, Nafarroako Foru Parlamentua da hirugarrenen aldeko elkartasun handiagoa dakarren erabaki oro hartzeko erakunde eskudun bakarra dakarren, dela Estatukoa, dela Europar Batasunekoa, dela munduaren gainerakoa, Nafarroa subjektu politiko desberdindua baita.

4. Nafarroako Gobernuak iragarri du Gastu Erregela deritzon lege-proiektu bat bidaliko duela, Foru Parlamentuak eztabaida dezan. Hori dela-eta, Geroa Baik bere iradokizunak egingen ditu, ez bakarrik gastuetan, baita diru-sarreretan ere (diru-sarreren aurreikuspenak ezartzea eta diru-sarrera ziurtatzeko bideak paratzea), bai eta finantzak sendotzeko arloan ere (kaudimen ratio berekiak ezartzea).
5. Geroa Bai printzipio hau ezabatzearen aldekoa da; hots, Estatu bateko autonomia-erkidegoak ez dezake Estatuak baino kreditu-kalifikazio (rating) hobea izan. Geroa Bairen xedea da Nafarroak ahal den kreditu-kalifikaziorik onena izatea, eta ez du ulertzen zergatik jaso behar duen eragin kaltegarria egiazki ordaintzen dituen interesetan, Estatuko kontuak okerrago daudelako.

4. SEKTOREZ SEKTOREKO POLITIKAK

4.1. Ingurumena eta Iraunkortasuna

4.1.1. Sarrera

Gure gizarteetan garatu den bizimoduak kalte handi-handia egiten dio natura-ingurumenari eta, horren ondorioz, arriskuan dago planeta osoaren etorkizuna. Natura-ingurumenaz mintzo garenean, lurrazalaz eta atmosferaz ari gara, izaki bizidunak, airea, ura, lurra barne harturik, bai eta biziak aurrera jarrai dezan behar diren beste baliabide batzuk ere.

Garapen teknologikoak eta biztanleria azkar hazi izanak inoizko kalterik handienak eragin dituzte ingurumenean; ondorioz, behera egin du haren kalitateak eta bizitzari eusteko gaitasuna.

Ingurumeneko hondamena murrizteko eta gizadiaren habitata zaintzeko, gizarteek aintzat hartu behar dute planetako baliabideak mugatuak direla. Adituen esanetan, biztanleriak eta haien eskariak haztearekin batera, hazkunde etengabearen orde ingurumena bestela erabili behar da, era arrazionalagoan, hain zuzen ere. Hori, ordea, bakarrik lortuko da, gizadiak jarreraz erabat eta goitik behera aldatzen badu.

Gizadiak ingurumenean sortu duen eragina izugarria izan da, eta Lurraren iragan geologikoaren hondamendi handien parean jarri da; gizarteak hazkunde etengabearen aurrean zer jarrera duen alde batera utzita, gizadiak aitortu egin behar du ingurumenak haren espeziearen biziraupena bera jartzen duela arriskuan.

Hona hemen zer proposamen dituen Geroa Baik ingurumeneko arazo garrantzitsuenen inguruan.

4.1.2. Iraunkortasuna

Geroa Bairen irudikoz, gobernuen politikak iraunkortasunezko printzipioekin bat egin behar dira: oparotasun ekonomikoarekin, gizarte-kohesioarekin eta ingurumenaren kalitatearekin bat, alegia. Gobernantza berria, izan ere, berrikuntzan eta herritarren parte-hartzean datza, baina baita natur baliabideen erabilera arduratsuan ere.

Irizpideok, hortaz, sektore guztietako politikak zeharkakotasunez zeharkatu behar dituzte, aurrerabiderako, gizarte-ongizaterako eta bizi-kalitaterako eredu berri bat errotzeko.

Ekologia eta ekonomia eskutik heldu dira; gero eta gehiago, gainera. Ingurumeneko eraginkortasunak, izan ere, produktibitatea, lehiakortasuna eta enplegu-sorrera dakartza berekin. Geroa Baik natur baliabideak, lehengaiak eta energia erabiltzeko kultura edo molde berria aldeztu du, guztiz beharrezkoa baita. Denok izanen dugu zer ekarria kultura politiko berri horretan, bakoitzak bere esparruan, eta denok aterako gara irabazten. Eraginkortasunean oinarritutako kultura berria da, oparotasunezko azken urteotan nagusitu diren xahukeria eta eraginkortasunik eza eragozteko. Ezin dute egungo kontsumo zentzugabeen mailek bere horretan iraun; eta bada kontsumo arduratsuaren alde jotzeko garaia.

4.1.3. Dena eta denok klima-aldaketaren aurka

Geroa Bairen irudikoz, munduaren lehentasun nagusia klima-aldaketaren aurka borrokatzea da. Estatuaren konpromisoa neurtzeko, helburuak noraino bete dituzten ikusi behar da. Alde

horretatik, Espainiako Estatu oso urrun dago 2012rako esleitu dioten kuota betetzetik, berotegi efektuko gas isurpenak mugatzeari dagokionez, erreferentzia-urtea kontuan hartuta (1990).

Europar Batasunak, gainera, munta handiagoko helmugak paratu ditu, eta 20/20/20 delakoa ezarri du; hau da, 2020. urterako, Estatu bakoitzak bere lurraldean gutxienez % 20 murriztu beharko ditu CO₂ isurpenak, energia-eraginkortasuna % 20 handitzearen ondorioz eta energia-eskariaren % 20, energia berriztagarrien bidez betetzearen ondorioz.

Legez arautu beharko litzateke helburu horiek betetzea; aldi berean, beste lege batek zor publikoaren gehienezko muga jasoko du, berrikitan Konstituzioa erreformatu ondoren.

Ingurumeneko politika sinesgarria izanen bada, beharrezkoa da helburu horiek sektorez sektoreko politiketan sartzeari, bai eta erronka handi hori ahalbidetuko duten jarduketan ere. Klima-aldaketaren aurkako estrategiak arrakasta izanen badu, Autonomia Erkidegoek, Udalek eta ekonomia-eragileek estrategia hartan parte hartu beharko dute.

4.1.4. Energia: berriztagarriak, garbiak eta enplegu-sortzaileak

Geroa Bairen irudikoz teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izaten hasi da energia berriztaezin fosilen eta mineral guztien ordez bestelakoak erabiltzea. Askoz ere bideragarriagoa da petrolioan, ikatzean eta uranioan oinarrituriko eredu segurtasunikgabeak, mendekoak eta garestiak baino.

Energia aurrezteak, eraginkortasunez erabiltzea eta energia garbiak garatzea oso interesgarriak dira krisiari aterabide egokia emateko, merkeagoak baitira, kalitatezko enplegu egonkorra sortze dute, eta balio erantsi altuko prozesuei lotuta daude.

Geroa Baik proposatzen du trantsizio hori Administrazio Publikoek planifikatzea, helburuak eta egutegia ezarrita, erregai fosiletan eta mineraletan oinarrituriko eredu zaharkituen ordez energia-iturri berriztagarriak mailaka erabiltzeko.

Hona hemen Geroa Baik besteak beste zer proposatzen duen alor honetan:

1. Administrazioek energia arduraz kontsumi dezaten sustatzea. Esparru guztietan eta administrazio guztietan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak hartzea.
2. Eraikin publikoetan energia eraginkortasunez erabiltzeko programak bultzatzea.
3. Gastuaren kulturaren aldaketa bat bultzatzea; uraren eta argiaren gastuan, esaterako.
4. Lehengaiak alferrik xahutzen dituzten produktuak eta kutsadura handiegia sortzen duten produktuak ekoiztea eta merkaturatzea zehatzea (plastikoak, bilgarri gehiegi erabiltzea...).
5. Argiztapen publikoaren sistemetan, energia eraginkortasunez erabiltzeko eta argi-kutsadura murrizteko irizpideak erabiltzea.
6. Gaueko Zerua babesteko Legea aldatzea, arau nagusia FHS % 0 izan dadin.
7. Luminaria oso kutsagarriak eta energiaren aldetik batere eraginkorrak ez direnak ordezkatzeko laguntza-plan bat bultzatzea, bai eta fluxua erregulatzen/egonkortzeko gailuak jartzeko ere.

Geroa Bai, bestalde, ibilgailu elektrikoa zabaltzearen aldekoa da, energia-kontsumoaren etorkizuneko funtsezkoa delako. Laguntza eman behar zaio zergen bidez eta, era berean,

ikerketa sustatu beharra dago, baina administrazioak eredugarri izan behar du; beraz, bere ibilgailuen artean ibilgailu elektrikoak erabili behar ditu.

Geroa Baik bultzatuko dituen neurriek helburu izanen dute egun erabiltzen ez diren minizentral hidroelektrikoak lehengoratu eta abiarazi daitezen sustatzea; era berean, azterlan eta proiektu zehatzak abiaraziko dira, lehendik eginda dauden ubideak eta urtegiak energia elektrikoak era berriztagarrian sortzeko erabiltze aldera. Era berean, instalazio fotovoltaiakoentzako primen aldaketa murriztailea berrikusiko da, Nafarroako milaka inbertitzaile partikularrei eragin diena.

4.1.5. Agur energia nuklearrari

Japoniako Fukushima, 2011. honetan bertan izandako istripu nuklearra historiako hondamendi nuklearrik handiena izan da Txernobilekoarekin batera. Istripuak energia nuklearraren segurtasunari eta eraginei (ingurumenean eta jendearengan) buruzko eztabaida piztu du berriro. Europako herrialdeen erantzunak desberdinak izan badira ere, Geroa Bairen iritziz Alemaniak hartutako erabakia norabide onean doa; hots, energia nuklearrik ez erabiltzea 2022tik aurrera.

Estatuari dagokionez, Geroa Baik nuklearrak epe laburrean itzaltzea aldeztu du eta, hasteko eta bat, Garoñako zentrala berehalakoan ixtea, Fukushima I. zentralaren teknologia berbera baitauka eta, lerro zuzenean, 100 kilometrora dago Nafarroatik.

Azken finean, segurtasunik gabeko energia garesti eta oso kutsagarria orokorrean kendu eta, haren orde, energia seguruak eta berriztagarriak erabili behar dira.

4.1.6. Mugikortasun molde berria

Iraunkortasun-printzipioekin bat, eta klima-aldaketaren aurkako borrokari eta energia berriztagarriak sustatzeari jarraiki, Geroa Baik oinarritzat jotzen du mugikortasuna zinetan lantzea. Are gehiago kontuan hartzen badugu, azken garaiotan ez duela interes handirik piztu; beraz, harrera beharrean dago.

Arestian azaldu ditugun beste proposamenekin eta neurriekin bat, Geroa Baik proposatzen dituen politikek mugikortasunaren kultura berria dute oinarri. Hau da, erabateko jarduketaren proposatzen du, mugikortasuna energetikoki eraginkorragoa eta ez horren kutsagarria izan dadin, eta herritarren bizi-kalitatea hobetu dezan. Kontua da sistema garraibide iraunkorragoetarantz bideratzea.

Geroa Baik, hartara, Mugikortasun Iraunkorrari buruzko lege bat aldeztuko du, jarduketaren oinarriak eta helburuak finkatzeko, banaketa modalari buruzko irizpideekin bat, eta operadore handiei eta erakarpen-zentroeiei betebeharrak ezarrita. Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen arabera, Diputatuen Kongresuak beranduenez joan den irailaren 5ean izapidetu beharko zuen. Legealdi berriaren hasieran jorratu beharreko kontua izanen da, inolako atzerapenik gabe.

Aldi berean, Geroa Baik uste du erabat birmoldatu behar direla mugikortasun iraungaitzera (hots, ibilgailu pribaturantz) bereziki bideratuak dauden inbertsio handiak, mugikortasun iraunkorreko azpiegituretan inbertsioak egiteko; gehienbat, trenbideetan, jendea eta salgaiak distantzi luzera, erdira eta txikira eramateko, bai eta tranbia eta autobusetan ere. Beraz, egun mugikortasun molde batera edo bestera egiten diren inbertsioak alderantzikatu egin behar dira.

Labur esateko, helburua da jendea eta salgaiak asfaltotik eta okupazio txikiko banako ibilgailuetatik trenbidera pasatzea eta, horren bidez, Nafarroa eta Europako gainerako lurraldeak lotzea, nazioarteko trenbide zabalaren bidez; horrek produktuak esportatzeko eta jendea garraiatzeko oztopoa gainditzeko aukera emanen du. Zaragoza eta euskal Y-aren artean prestazio altuko trena eraikitzeari dagokionez, haren aurrerapenaren aldekoa da, teknikoki frogatzen bada badagoela bidaiariak eta salgaiak eramateko aukera, baldin eta Estatuak zati handi bat Europako finantzaketatik hartzen badu. Bestela, Geroa Bai tren hori atzeratzearen aldekoa da suspertze ekonomikoa finkatzen ez den bitartean.

Behin Europako erabakiaren berri izandakoan, eta erabakian ezarri diren epeei dagokienez, beharrezkoa da UPN eta Gobernu Zentralaren arteko finantzaketa-akordioak berrikustea; akordioek finantzaketa-kostea bi urtez bere gain hartzera behartu baitute Nafarroa.

Trafikoari dagokion eskumenaz gainera (oraindik ere gauzatu ez dena), Geroa Baik proposatzen du Nafarroak hurbileko trenbideen eskumena bere gain hartzea, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

4.1.7. XXI. mendeko berariazko ur-kudeaketa

Geroa Bai, Urari buruzko Zuzentarauarekin bat eta Uraren Kultura Berriaren aldeko Europar Adierazpenari jarraiki, ur-kontsumoa oso nabarmen eta etengabe murriztearen aldekoa da, ura eraginkortasun hobea erabilita eta ur araztuak eta ureztaketa-urak berrerabilita.

Geroa Baik, bestalde, egungo ureztaketa modernizatzea aldeztu du, egun eskura dauden teknika hoberekin bat, eta, haren iritziz, presa handien proiektuak berrikusi egin behar dira; lehenbizikoa, Esako urtegia handitzeko proiektua.

4.1.8. Ingurumen-zerga

Nafarroako zerga-autonomia aintzat hartuta, Geroa Baik fiskalitatea erreformatzea proposatzen du, *kutsatzen duenak ordaintzen du* printzipioa egiazki betetzeko. Ingurumeneko portaera arduratsuak sustatu eta denon ingurumen-kapitalari eragindako kostea zehatu behar da: hau da, aireari, urari, lurzoruari, landaretzari eta faunari eragindako kostea.

Enpresen eta herritarren jardueren kanpo-kosteak barneratu eta erkidegoari saritu behar zaizkio. Hau da, gehiago kutsatzen duen autoak zerga handiagoa ordaintzen duen bezala, enpresari eta herritarri, era berean, haien ingurumen-portaeraren arabera tratatu fiskala eman behar zaie. Beraz, zerga handiagoa edo txikiagoa ordainduko dute, haien erantzukizunaren arabera.

4.1.9. Kontratazio Publiko Berdea

Garapen Iraunkorrerako Europar Estrategiaren 2010eko berrikuspenak xede bat ezarri zuen 2010erako Europar Batasun osoan; hots, kontratazio publikoa hein batean irizpide ekologikoekin bat egitea; hain zuzen ere, kide diren Estatu bikainenek kontratazio publiko ekologikoan lortu duten batez bestekoaren paperera iristea. Espainia, preseski, ez dago haien artean.

Kontuan hartuta Europako Erosketa eta Kontratazio Berdea Barne Produktu Gordinaren % 16 dela, argi dago botere eragilea duela. Beraz, irizpide ekologikoa kontratazio publikoan sartzeak berrikuntza eko-eraginkorra susta dezake. Administrazio publikoek berrikuntza ekologikoen merkatuak susta ditzakete, kontratazio publikoan irizpide ekologikoa sartuta.

Sektore publikoaren erosketa eta kontratueterako irizpideak arau bidez ezarri behar dira, helburu zehatzekin, Europako beste herrialde batzuek egin duten bezalaxe. Hartara, obrak, hornigaiak eta zerbitzuak publikoki kontratatzeko pleguek energia-aurrezpena eta energia-eraginkortasuna balioetsi beharko dituzte, eta, horrekin batera, ingurumeneko ziurtagiriak, ingurumena kudeatzeko sistemak eta abeltzaintza-hondakinen tratamendua.

4.2. Etxebizitza

4.2.1 Sarrera.

Duela 20 bat urtetik hona, Estatuan hiri-hedapen nabarmena gertatzen ari da, etxebizitza berriak eraikitzea ardatz harturik. Azken urteotan, esaterako, Frantzia, Alemanian eta Italian baino etxebizitza gehiago eraiki dira; eta hori, zalantzarik gabe, oso deigarria da, Estatuak duen biztanle kopurua beste hiru herrialde horiek dutenarekin alderatzen bada.

Azken urteotan, etxebizitza olde handia eraiki da, baina ez du halakorik eragin ez etxebizitzari buruzko ohiko eskariak, ez gazteak emantzipatzearen ondorioz eta familia-ereduan izaniko aldaketen ondorioz sortu diren etxe berriek, ez azken hamarraldian etorkin asko eta asko iritsi izanak. Bestelako arrazoiek eraginda eraiki dira horrenbeste etxe; hots, etxebizitza inbertsiotarako eta espekulatzeko erosi izanak, interes-tasa apalek eta bigarren etxebizitza olde handia eraiki izanak; itsasertzeko eta mendialdeko eskualdeetan, batez ere.

Arrazoi horiek guztiek eraginda, etxebizitzaren gaineko eskaria neurrigabea izan da eta, are okerragoa dena, urte horietan, prezioak KPIren gain-gainetik igo dira. Baina larriena da horrenbeste etxebizitza eraiki izanak eta hori eraikitzekeo manerak ez dutela konpondu gizarte talde zabalek dituzten etxebizitza-beharrak; batez ere, emantzipatze bidean dauden gazteen, errenta apaleko eta zailtasunak dituen jendearen eta etorkinen beharrak.

Printzipio orokor gisa, eta etorkizunari begira, Geroa Bai etxebizitzak zaharberritzearen aldekoa da, berria eraikitzearen gainetik; era berean, alokairuari lehentasuna ematearen aldekoa da erosketaren gainetik.

Etxebizitza babestuei dagokienez, Geroa Bairen iritziz, iruzurra eragotzi beharra dago, eskatzaileak zorrotz kontrolatuta lege ezarrita dagoen baremora egokitzen diren ala ez ikusteko, eta emandako etxebizitzak okupatzen diren ala ez ikusteko. Ikusi egin baita, etxebizitzak hartu dituztenak ez daudela egiazki beharrean, ez dituzte etxebizitzak behar bezala okupatzen eta/edo hirugarrenei alokatzen dizkiete.

Nolanahi ere, Geroa Bairen irudikoz, eraikuntza eraginkor eta eragingarriaren alde egin behar da, etxebizitza bizigune bihurtzeko materialak erabilita, eta ingurumenarekin bat; hau da, bero-galerak eragotzita, eta behar bezalako energia eta eraikuntza-gaiak baliatuta.

4.2.2 Etxebizitza duinerako eskubide unibertsala baliaraztea.

Geroa Bairen helburu nagusia etxebizitza duinerako eskubidea eraginkortasunez baliaraztea da. Eta, nolanahi ere, ohiko etxebizitza erosteko egin behar den diru-ahalegina nabarmen murriztu dadin lortzea. Arlo honetan, beraz, Geroa Bai behar adina lege-aldaketaren alde

eginen du, ordainketan etxebizitza ematea ahalik eta lasterren ezartzeko, hipoteka-mailegua ordaintzerik ez dutenek zor osoa kita dezaten, finantza-entitateari etxebizitza ordainketan emanda. Geroa Baik, era berean, behar adina lege-aldaketa bultzatuko ditu, finantza-entitatearekin mailegu bat sinatzerakoan, jendeak behar bezalako argibidea jasotzeaz gain, ulertu ere ulertu dezan zer ondorio dituzten maileguaren iraunaldian interes-tasa minimoak ezartzen dituzten klausulek, halakorik bada.

Etxebizitzarako eskubidea baliarazteko, funtsezkoa da talde batzuek etxebizitza eskura dezaten erraztea; batez ere, emantzipatze bidean dauden gazteek, errenta apaleko eta kanporaketan bizi diren taldeek, guraso bakarreko familiek. Horrekin bat, etxebizitzak eta ostatuak egokitu behar dira unibertsitateko ikasleentzako, genero-indarkeriaren biktimentzako, bananduentzako, eta 65 urtetik gorakoentzako. Hartara, diru-laguntzei eutsi egin beharko litzaieke, ahulenek etxebizitza soziala eskuratzeko aukera izan dezaten.

Geroa Bai etxebizitzen tamaina dibertsifikatzearen aldekoa da (40m²-etatik 90m²etara), bai alokairura bai erosketara bideratutakoen tamaina, baldintzen arabera eta eskatzaileen behar pertsonalen eta familiarrekin bat.

4.2.3 Alokairuaren merkatua eta ohitura sustatzea.

Gizarteak, betidanik, alokairua gastu bat bezala ikusi du, eta, erosketa, aldiz, inbertsio bezala. Familien % 13 alokairuan bizi dira. Europako batez bestekoa, ordea, % 40 inguru da. Datuak Espainiari berariaz dagokion joera bat erakusten du, Europako beste herrialde batzuen aldean beti azkena izan baita etxebizitzak alokatzeari dagokionez.

Gero eta herritar gehiagok pentsatzen dute, hala ere, alokairua erosketa bezain bide baliagarria dela. Geroa Bairen irudikoz, askoz ere gehiago sustatu eta bultzatu beharko litzateke alokairu-merkatua, ez baita nahikoa, bai eta alokairu-baldintzak ere; eta, are gehiago, etxebizitzak erosteko aukera dakarren alokairua ere bultzatu beharko litzateke. Beraz, ongi legoke alokairuko etxebizitza publikoaren eskaintza sustatzea harik eta sektorean egiten den esku-hartzearen % 30 izan arte (*low cost*: 70 metro koadro, gehienez 400 eurotan), gazteen emantzipazioa sustatzeko, etxebizitzen prezio garestiak galarazia baitago. Era berean, erosteko aukera dakarren alokairuko etxebizitza publikoen kopurua handitu beharko litzateke.

Geroa Bai benetan eraginkorrak diren neurriak abian jartzearen aldekoa da, alokairua sustatze aldera, beste herrialde batzuetan abiarazi diren bezala. Neurri oso garrantzitsu bat da alokairuaren BEZa erosketaren BEZarekin fiskalki parekatzea.

4.2.4 Etxebizitza hutsak merkatura ateratzea.

Geroa Baik uste du merkatura ahal den etxebizitza hutsik gehienak atera behar direla, hala berriak nola erabiliak, abantailak emanda hala etxebizitza horien jabeek nola maizterrei. Jabeek, izan ere, errentak kobratzeko bermea izanzen lukete, bai eta etxebizitza zaindu eta hobetzeko bermea ere, eta, era berean, egin beharreko berrikuntza-lanen interesik gabeko finantzaketa, 18.000 euro jo arte. Maizterrek, beran aldetik, errentaren diru-laguntza bat jasoko lukete, aipatu laguntza diru-sarreraren % 30 ez gainditzeko.

Alde horretatik, Geroa Bairen iritziz, proposamen hauek ere probetxugarriak lirateke:

- a) administrazioak aseguruak edo bermeak abiaraztea, etxebizitza hutsak errentan uzten dituztenentzako;
- b) etxebizitzak alokatzen dituzten jabeentzako bermeak sustatzea, eta kaleratze-prozesuak arintzea;
- c) jabeei aukera ematea, errentan utzitako higiezin bat lehen lerroko senitarteko batentzako erreklamatzeko.

4.3. Kultura eta Euskara.

“...bere buruaz hausnartzeko gaitasuna ematen dio kulturak gizakiari. Kulturak egiten gaitu gizaki arrazoidun, kritiko eta etikoki konprometituak. Haren bitartez, balioak bereizi eta gure hautuak egiten ditugu. Haren bitartez mintzo da gizakia; haren bitartez hartzen du kontzientzia bere buruaz; haren bitartez jotzen du bere burua burutu gabeko proiektu gisa, kolokan jartzen ditu bere lorpenak, etengabe aritzen da esanahi berrien bila, eta, haren bitartez sortzen ditu bera gainditzen duten lanak” (UNESCO, 1982. Mexikoko Adierazpena).

Kultura oso kontzeptu zabala da eta hamaika gauza sartzen dira haren baitan: pertsona bati bere sen kritikoa garatzeko aukera ematen dion ezagutza-multzotik pertsona batek dauzkan trebetasunetaraino eta informazio guztiraino. Dimentsio sozialari dagokionez, kulturak bere baitan biltzen ditu *gizarte jakin bateko bizimodu eta adierazpen guztiak, ohiturak, jarduerak, kodeak, arauak eta izaeraren erregelak barne, bai eta uste sendoak, errituak, portaera-arauak eta sinesmen-sistemak ere.*

Kulturak dituen dimentsio aunitz haietatik, Geroa Baik funtsean bi nabarmentzen ditu: batetik, kultura ezagutza da eta gizarte jakin baten garapena markatzen du, ez bakarrik ekonomikoa, baizik eta, batez ere, giza garapena, eta, aldi berean, gizartearen bizitasun-maila. Eta, bestetik, herri baten bizitza adierazteko erabiltzen diren adierazpide guztiak; adierazpen horiek herri horren talde-nortasunaren zutabeak dira.

Geroa Bairen irudikoz, kultura elementu bizia da eta eboluzioa eragiten du; ondasun bat da, eta ondasun horren garapena sustatu behar da, aukera-berdintasuna bermatuta eta herritar guztien eskubideen babesa ziurtatuta; hartara, beharrezkoa bada, egoera desorekatuak zuzentzeko ekintzak abiarazi behar dira.

Nafarroak erabateko eskumenak ditu kulturaren. Beraz, baliabideak Nafarroan kudeatzen dira eta politikak ere Nafarroan planifikatzen dira. Estatuak, hala ere, oraindik ez du kultur eta hizkuntza aniztasuna aitortu; ez du aniztasun hori errespetatzen. Horretan, gainera, atzerapausoak gertatu dira jarreretan, Espainiako sektore politiko eta mediatiko garrantzitsuek zabaldutako sektarismoak bultzatuta.

Hori guztia dela eta, elkartasunaren balioetan oinarriturik, eta aniztasuna aintzat harturik, Espainiako Estatuaren hizkuntzak eta kulturak errespetatu, aldeztu, garatu eta indartuko dituen politikaren alde egiten du Nafarroa Baik.

Gure irudikoz, Estatuko Administrazioak eredugarri izan beharko luke kultur aniztasuna sustatzerakoan. Geroa Baik neurri hauek proposatzen ditu, euskararen alde egiteko:

- Estatuari exijituko diogu administrazioek, norik bere eskumenen barruan, Europako Hizkuntzen Karta betetzen ote duten kontrolatzeko protokolo bat abiaraztea.
- Behar diren arauak aldatzeko eskatuko dugu, ordezkari politikoei, Kongresuan eta Senatuan hitz egiten dutenean, beren hizkuntza ofiziala erabiltzeko duten eskubidea aitortze aldera eta errespetatze aldera,
- Espainiako Estatuari kulturantzatasunaren aldeko jarrera tinkoa eskatuko diogu, hartan bizi diren kulturak babestu, garatu eta sendotzeko, hala Estatuan bertan nola kanpoaldean; *Instituto Cervantes* erakundearen bitartez, adibidez.
- Dibertsitatearen aldeko kanpaina publikoak egitea eskatuko dugu; haietako batzuk gizarteak Estatuko hizkuntzak eta kulturak aintzat har ditzan sustatzeko, bai barrualdean bai kanpoaldean, Estatuaren eleaniztasuna nazioartean bultzatuz.
- Behar bezalako lege-erreforma bultzatzea, euskaraz edo Estatuko beste edozein hizkuntzatan ari diren telebistak Erkidego guztietan ikusteko, baldin eta hizkuntza hori ofiziala bada edo haren erabilera frogatua badago.
- Euskara erabat ezartzea Estatuak Nafarroako Foru Komunitatean dituen zerbitzuetan.

4.4. Nekazaritza eta Abeltzaintza.

Geroa Bairen irudikoz, funtsezkoa da nekazaritzan eta abeltzaintzan bizi diren eta lan egiten duten herritarren lana aitortzea eta aintzat hartzea. Natura errespetatuz, herritar horiek biztanleria lurrari atxikitzea bermatu eta landa inguruneak bizirautean dituzte, eta, horrez gainera, ederki kudeatzen dituzte mendiak, oihanak eta lurrazaleko gainerako esparruak, beren jardueraren bitartez. Horrela, arbasoek utzi diguten natura eta kultura aberastasuna zaindu eta babesten dute.

Geroa Baik nekazaritza eta abeltzaintza sendo baten aldeko apustua egiten du. Horretarako, funtsezkoa da belaunaldien arteko jarraipena ziurtatzea —gazteak jarduera horretan sartzea, lehen sektorean ari diren pertsonen batez besteko adin altua jaisteko—, landa esparruak hiriguneek dituzten antzeko ekipamendu eta zerbitzuz hornitzea eta, batez ere, jarduera ekargarri bihurtzea, diru sarrerak eta bizi kalitatea ziurtatuz. Ez da onartzen ahal nekazariak eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioak aspaldikoak bezalakoak izatea, nahiz eta kontsumitzaileek ordaindu behar dituzten bukaerako prezioek gora jarraitzen duten.

Horretarako, Geroa Bairen ustez, nekazaritzak eta abeltzaintzak landa ekonomiaren oinarri nabarmenak izaten jarraitu behar dute —ustiatze familiarrek izan behar dute lehentasuna— eta, horrekin batera, funtsezkoa da industria eta zerbitzuen alorretako enpresa txikiak eta ertainak sortzea.

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bizirautea eta garapena ziurtatzeko xedez, Geroa Baik honako ildo hauek proposatzen ditu:

1. Nekazari eta abeltzainen eta nekazaritzako elikagaien industriaren eta banaketa zabalaren arteko harremanetan zentzuzko prezioak ezartzea bermatzen duten ekimen guztiak bultzatzea eta laguntzea.
2. Lanpostuak sortzea eta teknika ekologikoak erabiltzea bultzatzen duen laguntza politika bat sendotzea. Nekazariak, batez ere, eta eredu estentsiboagoak ahalbidetzen dituzten inbertsioak modulatzeko eta positiboki diskriminatzea, baita sektorearen

- barneko dibertsifikatzea xede duten inbertsioak ere.
3. Nekazari berrien eta dagoeneko lanean ari diren profesionalen artean aldi baterako elkartze esperimentalari eta horren antzeko beste ekimen batzuei laguntzea. Gazteei laguntzea, pixkanaka edo mailaz maila jardueran has daitezen
 4. Kalitatezko produktuak lortzeko, ingurumenaren eta ekologiaren alorretako teknikak bultzatzea eta, badaezpada, genetikoki eraldatutako abere eta landare organismoen bost urteko luzamendua ezartzea.
 5. Esne kuota gehitzea, kontsumoaren pareko mailara gutxienez.
 6. Gure produktuen kontsumoa bultzatzea, eta horri eraginkortasunez ekiteko, lurraldeari loturiko bereizte eta identifikatze politikak baliatzea (sor-marka, adierazpen geografiko babestua, labela...), politika horiek behar bezala kudeatuz. Era berean, beste ekimen batzuk aitzinatu behar dira: ekoizleak kontsumitzaileari zuzenean saltzea, merkaturatze zirkuitu laburrak eta kontsumo arduratsuko sareak sortzea.
 7. Ordezkaritza gehien dituzten sindikatu eta nekazaritza erakundeekin adostasuna bultzatzea.
 8. Nekazaritza politiken ildo nagusiak finkatzen dituzten nazioarteko foroetan — Europakoak batez ere— Nafarroak aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duten neurriak bultzatzea.

4.5. Justizia.

Justiziaren jatorria herria dugu, eta, herritarrendako berezko zerbitzu publikoa denez, Estatu Botereek justizia administratzea, gainera, pertsonen funtsezko eskubide eta askatasunen berme nagusia da. Justizia zuzenbidezko estatu demokratikoaren oinarritzko zutabea da.

Geroa Baik Nafarroan modu autonomoan eta deszentralizatuan aplikatzen den eta inguruko gizarte errealtatean erroturik dagoen Justizia baten alde egiten du. Justizia modernoa, azkarra eta eraginkorra nahi dugu, barnean hartzen dituen estamentu guztien ahalegin profesionala ere aintzat hartzen duena.

Botere politikotik bereizirik, horren mendean ez dagoen justizia baten alde egiten dugu. Horregatik, Geroa Baik konpromisoa hartzen du botereen arteko benetako bereizketa bermatzeko behar diren erreforma guztiak bultzatzeko eta laguntzeko. Besteak beste, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak hautatzeko era aldatu beharko litzateke, erakunde horrek botere politikoekin duen soberazko lotura saihesteko.

4.5.1. Espetxe Politika

Askatasuna kentzen duten zigor guztiek zigortua gizarteratzea izan behar dute xede, eta hori da, hain zuzen ere, espetxe politikaren alorrean Geroa Baik duen ardatz nagusia. Ildo horretatik, saihestu egin behar da presoek eta gizartearen arteko lotura oro haustea.

Helburu hori lortzeko, Geroa Baik eskatuko du, alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateari espetxe politikako eskumen guztiak transferitzea eta, bestetik, Estatuaren oinarritzko legedia gauzatzea, erregelamenduak egiteko ahalmena barne.

Aipaturiko kudeaketak honako jarduera hauek ekarriko ditu, besteak beste:

- a.) Espetxea zuzentzea eta antolatzea, eta bertako erregimena, funtzionamendua, planifikazioa eta ikuskaritza aitzinatzea.

- b.) Espetxeari atxikitako higiezinak, ekipamenduak, eta giza eta material baliabideak administratzea eta kudeatzea
- c.) Gizarteratze programak planifikatzea eta antolatzea, prestakuntza eta gizarte interesa xede dituzten hainbat jardueratan presoek parte har dezaten.

4.5.2. Justizia Administrazioa

Justizia administrazioaren alorrean, Geroa Bairen erreferentzia eredu nagusia da justizia sistema autonomoa eta deszentralizatua sendotzea. Xedea lortzeko, hainbat neurri proposatuko ditu hurrengo legealdian, besteak beste:

- Nafarroako jurisdikzio instantzia gorena Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia izanen da. Izan ere, instantzia judizialen erakunde nagusia da hura ondoko eskumenetan: alor zibila, merkataritzakoa, penala, lan alorrekoa eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Nafarroan hasitako prozesu judizial guztiak bere lurraldean kokaturiko epaitegietan agortzen dira, Auzitegi Gorenaren aurrean doktrina bateratzeko helegitea bazterrean utzi gabe.
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia azken jurisdikzio instantzia arrunta da, Nafarroako foru zuzenbide publiko eta pribatua ezagutzeari eta horren arabera epaitzeari dagokienez.
- Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lanpostuak betetzeko, horietara sartzeko eta igoera profesionalerako eskumena eskatzea.
- Nafarroan garatzen den Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatorako plan bat diseinatzea eta abiatzea. Plan horretan Justizia Administrazioari atxikiriko agente guztiek parte hartuko dute, eskumeneko jarduera osoa Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egin ahal izateko: euskaraz eta gaztelaniaz.
- Mugatze eta planta judizialari dagokion egungo antolamendu juridikoa aldatzea, Nafarroako Foru Komunitateak atal eta epaitegi berriak sortzeko aukera izan ditzan.
- Horrela, Geroa Baik konpromisoa hartzen du ondoko atal berrien sortzea bultzatzeko: Nafarroako Epaitegi Probintzialean atal bat, merkataritza alorreko epaitegi bat, lan alorreko epaitegi bat, alor penaleko bi epaitegi eta, azkenik, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi bana Agoitz, Lizarra, Tafalla eta Tuterako barruti judizialean.
- Era berean, behar diren lege aldaketak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu hurbileko justizia sistema bat bultzatzeko. Horren xedea izanen da auzi txikiak azkar eta eraginkortasunez ebatzea, prozedurazko berme osoak izanik betiere.
- Prozedura judizialetera IKTak sartzea, eskumeneko organoekin izapidetze eta komunikazio jarduerak sinplifikatzeko.
- Nafarroako Justiziaren Kontseilua sortzea proposatzen dugu, osaketa paritarioa izanen duena. Izan ere, justizia, epaile, fiskal, funtzionario, abokatu eta prokuradoreen alorrean eskumenak dituzten Administrazioak hartuko ditu bere baitan, kide anitzeko organo gisa ondoko atribuzioak gutxienez izan ditzan;
 - Justizia Administrazioa Nafarroa zertan den eta noraino garatu den ebaluatzea eta aztertzea. Behar izanez gero, erakundea hobetzeko neurriak hartzea eta jarduerak aitzinatzea proposatuko ditu. Urteko memoria emanen du.

- Justizia Administrazioari loturiko agente guztien arteko elkarrizketarako eta gatazkak konpontzeko foroak.
- Ondoko lehendakariaren izendapenak proposatzea: Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusikoa, horren Saletakoak eta Nafarroako Epaitegi Probintzialekoa.

Prozedurazko bermeei dagokienez, sistema judizial orori bere baitan goreneko estandarrak ezartzeko eskatu behar zaio, jarduera judizial baten mende dauden pertsona guztien giza eskubideak babeste aldera. Ildo horretatik, Geroa Baik honako hauek proposatzen ditu:

- Auzitegi Nazionala kentzea, eta bere eskumeneko funtzioak auzitegi arruntei ematea.
- Epailearen aurrean jarri baino lehen atxiloturiko pertsonak isolatzeko gaur egun dagoen figura kentzea.
- Poliziaren egoitzetan atxilotuen tratatu txarrei eta abusuei aurrea hartzeko protokoloak ezartzea, eta, hala behar denean, poliziaren galdeketa grabatzea eta abokatuaren laguntza eta auzitegiko medikuaren azterketa ahalbidetzea, atxilotua egoitza horietan dagoen bitartean.

Zoritxarrez gizartean erroturik jarraitzen duten hainbat indarkeriari erantzun eraginkorragoak emateko garaia da. Besteak beste, genero indarkeriari eta babesgabeago egoteagatik biztanleriaren hainbat sektorek pairatzen dituzten beste indarkeria batzuei buruz ari gara. Izan ere, horien artean adineko pertsonak, haurrak eta egoera irregularrean dauden immigranteak ditugu gehienbat.

Talde horiei laguntzeko eta babesteko prozedurak modu integralean jorratzearen aldekoak gara. Horretarako, poliziak, epaitegiek, gizarteak, osasunak eta prebentzioak eskaintzen ahal dituzten neurri guztiak koordinatuko dira, indarkeria mota hori sortzen duten faktore guztiak erazteko.

Azkenik, Geroa Baik konpromiso aktiboa hartuko du bere gain, gure gizartean indarkeria mota desberdinak pairatu dituzten biktimak aitzat hartzeko eta jaso behar duten ordaina horiei emateko. Hain zuzen ere, indarkeria egoerak gainditzeko irtenbide gisa baztertu egiten dugu biktimak ez gogoratzea edo ahaztea.

4.6. Herritarren parte-hartzearen alde; erakundeen berrikuntza demokratikoaren alde.

Geroa Bairen iritiz, sistema demokratikoa hobetu beharra dago, irekiagoa egiteko eta jendeak parte hartzeko aukera gehiago izateko. Munta handiko eztabaida dago ordezkartzan oinarrituriko politika-sistemen mugez, akatsez eta kalitate demokratikoaren hobekuntzez, eta gurea horrelako sistema bat da. Eztabaida nagusietako bat da nola antolatu herritarren parte-hartzea erabaki politikoak hartzerakoan. Gaur egun, izan ere, erabaki politiko ia guztiak alderdi politikoek erakundeetan dituzten hautetsiek hartzen dituzte; aldi behin hautatutako ordezkari politikoak dira, eta haien esku utzia dago erabakimena. Hainbat arrazoi direla eta,

herritarrak, neurri handian, erabaki horietatik urrun sentitzen dira eta ez dituzte beren egiazko kezka erabakiotan islatuta ikusten.

Hori dela eta, *demokrazia zabaldu* beharra dago, bi helburu gogoan hartuta: batetik, hobetu behar dira gizarteak politikan parte hartzeko dituen bideak, eta, bestetik, sistema demokratikoaren beraren zilegitasuna eta kalitatea sendotu behar dira. Horrez gain, hainbat formula saia daitezke, gizarteak erabakietan etengabe parte har dezan; esaterako, gizarteak parte hartzeko kontseiluak, aurrekontu parte-hartzaileak eta beste. Era berean, lanabesak abiarazi behar dira, jendeak erabakietan zuzeneko parte hartzea izan dezan, herri-kontsulten eta erreferendumen bitartez.

Gizarteak parte hartzeko aukera handiagoa izaten du autonomia- eta udal-erakundeetan erabakietan; udal-erakundeetan erabakietan, batez ere. Herritarrengandik hurbilago baitaude beste erakunde batzuk baino; udal-erakundeak, bereziki. Haien erabakiak, gainera, oso garrantzitsuak izan dira gizartearen bizi-baldintzak osatzeko. Horrek guztiak, beraz, erabakietan parte hartzeko interesa pizten du herritarren artean; ahal den modurik zuzenean eta eragileenean parte hartzeko interesa, gainera.

Gaur egun indarrean dagoen legeria, hala ere, izugarri murriztailea da eta nekez irekitzen ditu bideak, jendeak erabakietan parte har dezan. Hona hemen, besteak beste, murrizketa eta hutsune nabariak:

- Aurreikusitako erreferendum modalitate orok Gobernu Zentralaren oniritzia jaso behar dute (herri kontsultei dagokienez), edo Gobernuburuaren ekimena izan behar dute (erreferendum kontsultiboei dagokienez).
- Erreferendum konstituzionalean izan ezik, edota Autonomia Estatutuak berresteko eta erreformatzeko erreferendumetan izan ezik, erreferendum eta herri kontsultek ez dute izaera loteslerik ez erabakitailerik.
- Autonomia Erkidegoei dagokienez, ahalmenik ere ez dute autonomiaren eskuetan erabat dauden gaien gaineko erreferendumik edo herri kontsultarik egiteko; eta zer esanik ez, gaur egun haien eskuetan ez dauden gaien gainean.

Herritarrek parte hartzeko bide horiek, beraz, ez dira inola ere nahikoak, arestian azaldu ditugun erronkei aurre egin nahi izatekotan.

Geroa Bairen neurriak, herritarren parte-hartzearen alde eta erakundeen berrikuntza demokratikoaren alde

- Autonomia Erkidegoek erreferendum kontsultiboak eta/edo lotesleak deitzeko ahalmena izatea, erkidegoarentzako garrantzi berezia duten erabaki politikoaren gainean.
- Tokiko Herri Kontsulten emaitzak eta Konstituzioaren 92. artikulua arautzen duen erreferendumak izaera loteslea izatea.
- Herritarren zati garrantzitsu batek (% 10ek) eskatuta, tokiko, autonomiako eta estatuko erakundeek herritarren interesentzako gai funtsezkoak herri kontsultara edo erreferendum loteslera edo kontsultibora eraman behar izatea.
- Ez dadila beharrezkoa izan Estatuaren baimena tokiko eta autonomiako erreferendumak eta herri kontsultak antolatzeko, eta alkateak edo autonomiako

presidentek baimendu behar izatea, salbu eta herritarren ekimenez bultzatua bada; halakoetan, derrigorrez egin beharko da, legez ezartzen den kasuetan izan ezik.

- Kudeaketa publikoan, Aurrekontu Parte-hartzaileen alde jokatzeko.
- Erreforma bat egitea, etorkinen hauteskunde-eskubideak aitortzeko, behar bezalako erregulazioa eta betebeharrak ezarrita.

Bestalde, beharrezkoa eta premiazkoa da neurri egokiak hartzea, Gobernuaren eta Administrazioen kudeaketan gardentasun handiagoa izan dadin lortzeko eta, era berean, bide egokien bitartez, herritarrek informazio gehiago eta errazago eskuratzeko aukera izan dezaten erdiesteko, herritarrek gobernu-ekintza egiazki gainbegiratzea ahalbidetze aldera. Azken buruan, kontua da *Open Government* (Gobernu Irekia) kontzeptuaren ideian aurrera jotzea; horrekin bat, Gobernuaren eta Estatuko Administrazioaren jarduerak maila guztietan irekita egon behar du, herritarrek eraginkortasunez azter dezaten eta ekintza egokiro gainbegiratzeko. Geroa Bai, beraz, informazioaren eta gardentasunaren aldekoa da egungo ilunkeriari aurre egiteko; kudeaketa publikoa eraginkortasunez eta eragingarritasunez egitearen aldekoa, eta kontrol-sistemak ezartzea eskatuko du, bai eta kudeaketa txarraren inguruko erantzukizuna ere.

- Kargudun publiko izateagatik, pertsona batek jasotzen dituen ordainsari, dieta, dirusari eta beste kargu-sari oro aditzera eman beharra; zenbat diru den eta nondik datorren.
- Gardentasun Lege bat onestea, jendeak gobernuaren erabakiak eta gobernuak dituen datuak eskuratzeko bermatzeko; estatistika-datuak, aurrekontuak edo beste edozein, gobernuaren gaineko kontrol publikoa egiteko balio badute, eta herritarren parte-hartze demokratikoa sustatzen badute.
- Gobernuaren datu-base guztiak formatu berrerabilgarrietan (*Open Source*) argitara emateko neurriak hartzea (*Open Data*), eta herritarrek parte hartzeko bideak ezartzea, entzute eta elkarreragineko teknologia-plataformetan oinarrituta.
- Kudeaketa publikoan eraginkortasunezko eta eragingarritasunezko estandarrak ezartzea, bai eta konpromiso bat eta sistema-kontrolak ere, kudeaketa txarraren inguruko erantzukizuna bazter utzi gabe.
- Ordezkatuek ordezkariek kontrolatzeko eta kargutik kentzeko figurak sortzea.
- Gauza publikoa zabaltasunez, soiltasunez eta altruismoz egiteko balioak sustatzea.
- Bultzada demokratikoa indar politikoen baitan eta hautesleriarekiko harremanetan: informazioa emateko, erabakiak hartzeko, kontrola egiteko bideak irekitzea, baita iritzia emateko bideak ere, kideen artean eta hautesleen artean kontsultak eta inkestak eginez; halaber, gizarte-taldeekin zuzeneko harremanak izatea.
- Erakundeetan hainbat maneratan eta mailatan dagoen ustelkeriari aurre egitea; maiz, ustelkeria legezketasun itxuraz agertzen da, eta erakundeek berek toleratzen dute. Etengabeko jazarpena ustelen eta usteltzaileen aurka.

Hori guztia egin ahal izanen da, haustura digitala gainditzera bideratutako formulak eta irtenbide zehatzak diseinatu eta bultzatzen diren neurrian, eta jende guztiak baldintza onargarrietan Interneten sartzeko aukera bermatzen den heinean; horrekin batera, lanabes teknologikoei buruzko ezagutza eta ikaskuntza sustatu behar dira. Geroa Bai, hartara, honen alde egiten du:

- Neurriak hartuko dira, banda zabalaren egungo kalitatea eta emaria gainditzeko, oraindik ere Europako txarrenetako eta garestienetako bat izaten jarraitzen baitu.
- Lanabes libreak erabiltzea, administrazioetako software librea oinarri harturik.
- Administrazioei, eragileei eta fabrikatzaileei erreklamatzeko, neurriak har ditzatela gizartearen eskariak aintzat hartzeko eta, horrekin bat, produktuak eta zerbitzuak beste hizkuntza batzuetan ere emateko (euskaraz ere bai); bereziki, software-fabrikatzaileei eta ordenagailuetako eta eskuko telefonoetarako edukien hornitzaileei.
- Behar bezalako jarduketak sustatuko dira, euskarak aplikazio informatikoetan eta ofimatikoetan lekua izan dezan bermatzeko, bai eta Interneten ere, informazioa igortzeko eta jasotzeko hizkuntza gisa erabiltzeko aukera izan dadin.

5. EKINTZA ETA KANPO EKIMENA

5.1. Bakezaletasuna eta antimilitarismoa

Bakezaletasuna Geroa Bairen jardunbidearen printzipioetariko bat da. Izan ere, derrigorrezko soldadutzarekiko kontzientzia eragozpenaren eta intsumisioaren mugimenduak indar handia lortu zuen, eta horren aurrekari nabarmena du antimilitarismoak Nafarroan. Horra hor, gure irudikoz, koalizioaren lehentasunetariko bat: bake kontzientzia zabaltzea eta barreiatzea, eta ordezkariak lortzen dugun organoetan hura bideratzea.

Era berean, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea ez da eskubide horren nazioarteko alderdietatik bereizten ahal. Autogobernuaren alde egiten dugun borrokaren hondarrek helburua eta bake mugimenduarena berberak dira: aniztasunean bildurik, batasunerantz ezinbestean garatzen den mundua.

Hartaz, nazioartean Geroa Baik garatzen duen jardunbide politikoaren oinarria hau da

- Giza eskubideak eta komunitate nazionalen eskubideak bermatzea.
- Gatazka politika ordezkatzeko lankidetzak bultzatzea.
- Zentzuzko segurtasun politika garatzea pertsonen zorientasunari eta xede utziezin bati loturiko ahalegina da, armadarik izan ez duen mundu baten hondarrek utopian kokaturik betiere. Izan ere, egundainoko jokabide militaristek agerian utzi dituzte indar militarra erabiltzeko eragindako gastuak —mota guztietakoak, giza gastuak barne— eta bidegabekeria. Zaila izanik ere, bide militarretatik kanpoko irtenbideak bilatzea behar handia da, ageriko arrazoi etikoak egoteaz gainera, “gerraren” ohiko bideek hondamendi ikaragarriak ere eragiten baitituzte.
- Europar Batasunaren prozesu politikoa bultzatzea; munduan oreka, justizia eta bake handiagoen alderdia baita.
- Ez ditugu onartzen disuasio armatuaren teoria eta estrategia eta nazioarteko komunitateak presio diplomatikoa eta ekonomikoa garatzeko neurriak. Lehenik eta behin, armen ekoizpena eta trafikoa sistematikoki kontrolatu behar dira giza eskubideak bortxatzen diren egoeretan edo aurreikusten ahal diren eskualde gatazketan. Ildo beretik, segurtasunaren eta poliziaren alorreko transferentziak kontrolatu behar dira.
- Enpresek giza eskubideen alorreko jokabide kode bat izatea bultzatzea, nazioz harandiko jardueran ari direnek batez ere, eskubide horiek aintzat harturik eragiketa guztietan aintzat hartu eta errespetatu dituzten.
- Heriotza zigorra eta tortura aktiboki ezeztatzea, eta berme guztiak izan dituzten bidezko epaiketak exijitzea.
- Nazio Batuen Erakundeak gizakiaren alde esku hartzeko eskubidea aitortzea.
- Pertsona guztien giza eskubideak babestea, emakumearenak batez ere. Horretarako, Beijingeko plataformaren gomendioak bete behar dira, besteak beste, emakumeen mutilazio genitalaren kasuak ikertzeko konpromisoa hartzeko eta asilo alorreko legedian genero arrazoiengatik gertatzen diren jazarpenak sartzeko, errefuxiatu izatera ebazteko arrazoiak izan dadin.

- Giza eskubideekin batera, nazioen autodeterminazio eskubidea aitortzea ezinbesteko elementua da, bakea eta segurtasuna iraunkorrak izan daitezen.
- Herriek pairatzen dituzten hainbat egoera ezabatzea: zapaltzeak, okupazioak edo herri horien autodeterminazio eskubidea ukatzea. Horien barnean sartzen da batez ere Espainiako Estatuak Nazio Batuen Bake Plana bete beharra, askatasun osoz Mendebaldeko Saharako autodeterminaziorako erreferenduma egite aldera.
- Gastu militarra murriztea eta teknologia modernizatzearen oinarrietariko bat goraldi militarista izatea ez onartzea.
- Arma nuklearrak deuseztatzea eta, proba atomiko guztiak arbuiatzea, horiek erabat gelditzeko exijituz.
- Mundu osoan arma kimikoak erabat debekatzea.
- Nafarroan Bardeako tiro poligonoa eraistea eta, horretarako, gaur egun Defentsa Ministerioarekin sinatutako hitzarmena salatzea. Ezkaba mendiko gotorlekua erreklamatzeko, Ministerioak Nafarroari eman diezaion, eta, esparru zibil gisa erabiliz, Gerra Zibilean askatasuna eta eskubide zibilak galdu eta erail zituzten pertsona guztien memoriarako gunea izan dadin, besteak beste.
- Desmilitarizatzeko globalaren aldeko apustua. Aurrekontu militarren sosa gizarte gastuetara eta nazioarteko elkartasunezko beharretara bideratzea. Erabilera militar eta polizialeko guneak erabilera zibilera itzultzea. Lurraldea desmilitarizatzea.
- Bakearen aldeko ikerketan eta gerraren aurkako jardueran ari diren ikerketa zentroei laguntzea. Ikastetxeetan garapenaren eta bakearen aldeko hezkuntza bultzatzea.

5.2. Lankidetzak, elkartasuna eta garapena

Nazioarteko gure politikaren ardatzak lankidetzak, justizia eta nazioarteko elkartasuna izanen dira, bai eta giza eskubideak sustatzea eta babestea ere.

Nazioarteko esparruan, herrialde pobretuekiko elkartasun politikaren oinarriak finkatu behar dira. Geroa Baik honako hauek bultzatuko ditu: elikadura laguntzako nazioarteko politikak aldatzea; nekazaritzako produktuak nazioartean trukatzeko arauak aldatzea; natura esparruak eta oreka ekologikoa defendatzea; natura baliabideen erabilerari dagokionez, iraunkortasunaren aldeko apustua egitea eta ingurumena babestea; legedi zorrotzagoa ezartzea, Hegoaldeko herrialdeetan herrialde industrializatuek gai toxikorik igor ez dezaten; eta, azkenik, multinazional handien jokabide kode bat onestea.

Garapenerako lankidetzak plan bat abiatu behar da, laguntza programa baten bidez bultzatua eta horrekin koordinatua; ekonomiari dagokionez, urtean NPGren %0,7rantz jo dezan.

Estatuaren esparruan hainbat konpromiso betetzeko exijitu behar da, laguntzaren zenbatekoak zehaztekoak ez ezik, lankidetzak eta garapen politikak bere benetako helburuak lortze aldera ezarritakoak ere.

Garapen politikaren esparruan ez da gutxietsi behar horren gainean mundu mailako merkataritza trukaketek duten berebiziko garrantzia.

Munduko merkataritzan aritzeko ez dago parte-hartzaileen arteko indar eta botere berdintasun baldintzarik, eta, era berean, merkataritza horrek ondorio latzak eragiten dizkio gizarte justiziarri, herrialdeen artean eta horien barnean.

Nazioarteko lehia gogorrek sorturiko giroaren ondorioz, langileen esplotazioa areagotzen da munduko eskualde batzuetan, egoera horrek oso lan baldintza gogorrek ezartzen dizkielako. Suspertzen ari diren herrialdeen ekonomiak hobetu ahala, hazkunde materialak gizarte aurrerapena izatera jo behar du.

Ilido horretatik, mundu garatuak pizgarri positiboak eskaini behar ditu, garapen xumeagoko herrialdeetan gizarte aurrerapenak aurrera jo dezan.

Nazioarteko merkataritzarako hurbilpen demokratikoagoa eta prebentiboagoa egon behar da, eta Munduko Merkataritza Antolakundeak Giza Eskubideen Hitzarmenak, bioaniztasuna eta klima aldaketa errespetatu behar ditu. Gure irudikoz, hainbat proposamen egin behar dira alor horretako arautegiak eta politikak aldatzeko, gizartearendako helburu egokiak bultzatzen, besteak beste: giza eta gizarte eskubideak babestea; ingurumena eta bioaniztasuna; osasuna eta ongizatea; eta kultura. Era berean, garatze bidean ari diren herrialdeekin konpromiso bereziak hartu behar dira.